

pertsonaiak

benito lertxundi
pello zabala
iratxe irigoien

gizartea

gasteizko 'azao' plataforma

arteak

artepan gozotegia

kultura

durangoko azoka

historia

gera zibila

GEU

2 €

2005eko abendua

156

benito lertxundi





X. URTEURRENA

AZAROA

29an. ANTZERKIA

"Yo mismo con mi mecanismo". Juan Aroca
(Paramount Comedy)

30an. MUSIKA

Kontzertu akustikoa

ABENDUA

1ean. MUSIKA

The Solanos + Sagarroi
(diskoen aurkezpenak)

**2an. AFARIMERIENDA / LUNCH
+ MUSIKA**

Once Varas (Gasteiz)

Aktuazio guztiak 20.30etan - 1ekoa: 20.00etan

jantoki **BEJETARIANO**
Astelehenetik ostiralera
Eguerditan

Asteartero
20.30etan
AKTUAZIOAK

S. Fko. Xabier Kantoia, 4 • Tf. 945 276 833 • listarra@euskalerrria.org

geu aldizkaria kioskoetan

Bere egunean iragarri bezala, GEU ALDIZKARIA jada EUSKAL HERRIKO KIOSKOETAN SALGAI aurkituko duzue: Gasteizko puntu garrantzizkoetan; Araban, Agurainen, Araian, Dulantzin, Murgian, Zigoitin, Legution, Aramaion, Izarran, Laudion, Amurrian, Artziniegan, Trebiñon, Maeztun, Kanpezun, Bernedo, Oionen, Eskuernagan, Langraizen, Añanan...; bai eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako puntu gutxi batzuetan ere.

Aurrekoan zehaztu legez, aldizkariaren erakusleihu gisa ulertzen dugu zabalpen eta salgai jartze hau, harpidetza baita erronka.

Datorren alean salmenta puntuak zehaztuko dizkizuegu.

**salgai
abendutik aurrera,
2 euroan
[irtenaldi eskaintza]**

Laguntzaileak:



zeregin 4
abenduko agenda

iritzia 7
bagare euskal tokia

geupertsonaia 8
benito lertxundi

euskaltasunean. trebiño 12
andoni portilla

kaletik / idazleenzutabea 13
gasteiz, hiri modernoa? / jon arretxe

geugaia 15
AZAO plataforma & gasteizko alde zaharra

batbitan 18
pello zabala meteorologoa

artetxokoa 20
artepan gozotegia: 'imajinak' bilduma

proposamenak / literatura 22
cd-ak & liburua / txabi arnal

lauhitzetan 23
azti-begia elkartea & irratia / beste

batbitan 24
iratxe irigoien,

blusa & nesken elkarteko lehendakaria

bidaia / errezeta 26
jon arretxe / txipiroiak plantxan...

arababixotzian / historiazutabea 27
alfredo ibarra / erlantz urtasun

geu elkartea & geu aldizkaria 28
kultur eskaintza

orribatean 29
durangoko azoka >>

orribatean 30
>> nobedadeetako 2

historia(̄euskara) 31
1936/7/18ko estatu kolpea gasteizen

umorea 33
iñigo sarasola

iritzia 34
itxi dezagun garoña

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



1

>BERTSOTAN BAGARE. FINALA.

ramon bajo ikastetxean.
19.00etan. 945288617

>paral. 10 urteurrena
ikus. hemen

>TXAN MAGOA.

amurrio antzokian. 22.30.
www.amurrio.org

7-11

>DURANGOKO AZOKA.

ikus. hemen

22

>GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA.

www.geugasteiz.com
ikus. 28. orr

>KONTZERTUA.

benito lertxundi
ikus. hemen

26

>TXOTXONGILO TXOROAK

ane monna, eskola eta karrama-
rroi: 'amama pantxikaren altxor
ezkutua' (txotxongiloak)
beñat etxepare antzokian (ipa-
rralde gizarte-etxea),
18:00etan sarrera: 2 euro
gasteizko udaleko kultur saila.
www.vitoria-gasteiz.org

27

>KULTUR ERROTA-GEU ELKARTEA.

hitzaldia: 'vasco-navarro trenbidea' (iñaki barona). Paral, 20.30. www.geugasteiz.com ikus. 28. orr

>TXOTXONGILO TXOROAK

teatro traperero del río: 'urrun erreinua' (txotxongiloak) ipar-arriaga antzokian (arriaga gizarte-etxea),
18:00etan sarrera: 2 euro gasteizko udaleko kultur saila. www.vitoria-gasteiz.org

>GASTEIZKO HAUR IKUSKIZUNEN II. ERAKUSTALDIA

txirri, mirri eta txiribito junior: 'mirri-tel' (pailazoak) mendizorrotzeko kiroldegian, 19:00etan sarrera: 2 euro. abenduaren 17, 19 eta 20an goiuri jauregian, eta ikuskizun-egunean mendizorrotzeko kiroldegian.
abonamenduak eta familientzako deskontuak
gasteizko udaleko kultur saila. www.vitoria-gasteiz.org

28

>TXOTXONGILO TXOROAK

kukubiltxo taldea: 'dir-dir' (txot-
xongiloak)
jesus ibáñez de matauco
antzokian (hegoalde gizarte-
etxea), 18:00etan
sarrera: 2 euro
gasteizko udaleko kultur saila.
www.vitoria-gasteiz.org

2

>PARRAL. 10 URTEURRE- NA. IKUS. HEMEN

>ANTZERKI ARABARRAREN
I. ERAKUSTALDIA.

zigoitiko zentro sozio-kulturele-
an. 20.00. helduentzat.
www.ama-lur.com

17

>UMEENTZAKO ANTZERKIA:

tramankuluak.
ikus. hemen

24

>OLENTZERO

16:00-17:30 olentzerok berak haurren eskutitzak jasoko ditu uda-
letxean (plaza berrian)
18:00 olentzeroren desfilea

ibilbidea: bilbo plaza, frantzia kalea, bake kalea, independentzia
kalea, alaba jeneralaren kalea, becero de bengoa kalea, prado
kalea, andre maria zuriaren plaza, plaza berria
18:50 olentzeroren agurra, udaletxeko balkoi nagusitik (plaza
berria)

gasteizko udaleko kultur saila. www.vitoria-gasteiz.org



3

>EUSKARAREN EGUNA

>'urrezko giltza' ekitaldia.
ikus. hemen

>KONTZERTUA: BENITO LERTXUNDI.

Amurrio antzokian. 21.00. 15
euro.

www.amurrio.org

18

>GEUREKIN MENDIRA: MONTEMAYOR, ESCANOS.

www.geugasteiz.com
ikus. 28. orr

>UMEENTZAKO ANTZERKIA:

tramankuluak.
ikus. hemen

kontzertua > benito lertxundi: '40 urtez ikasten egonak-zuzenean' principal antzokia

✓ eguna: abenduaren 22a

✓ ordua: 20.30

✓ prezioa: besaulkia/anfiteatroak: 16/11 euro

benito lertxundi: ahots nagusia, gitarra

juantxo zeberio: pianoak eta sintetizadoreak

fernando ederra: baxua

pello ramirez: violoncelloa eta akordeoia

kutxo otxoa de eribe: bibolina

jose mari irastorza: flauta

gurutz bikuña: gitarra elektrikoa

olatz zugasti: ahotsa, sintetizadoreak

angel unzu: gitarra akustikoa, bouzoukia, perkusioak

diskoaren ezaugarriak: album bikoitza, 20 kanta eta

luxuzko liburu zabala

zuzenekoan: argien muntaia ikusgarria

antzerkia > tramankuluak federico garcia lorca antzokia (lakua gizarte etxea)

✓ tantaka teatroaren produkzioa da.

✓ jose antonio portillorena

✓ egunak:

abenduaren 17a: 12.00-17.00-19.00

abenduaren 18a: 12.00-17.00

✓ prezioa:

besaulkia-anfiteatroak: 5 euro

edukiera mugatua

✓ gomendaturiko adina: 6-12 urte

>testua eta ideia: jose antonio portillo

>itzulpena: harkaitz cano

>dramaturgia eta zuzendaritza:

carles alberola/fernando bernues

>interpreteak: aitzpea goenaga/jose ramon soroiz

tramankuluak izeneko proiektu anizkuna jose antonio
portillok sortu du; haurrak irakurketara eta idazketara
hurbildu nahian egin diren esperientzia batzuetan oinarrituta
dago.

hasieran tresna horiek eskolako materialak ziren eta
hamabost urtez halaxe erabili zituzten eskoletan. geroago,
bestelako erabilera eman eta edertasun plastiko harrigarria
zuen erakusketak didaktiko batean bildu zituzten. orain,
tresna horiek dira ikuskizunaren oinarriak.

muntaketa berezia da, bai istorioen jatorriagatik, bai
formatuagatik. helburu didaktiko horiek ondo irudikatze-
ko intimitatezko giro bat sortu da eta giro horretan istorioak
aitortza baten moduan adierazten dira, hitzen tonu egokia
eta aktorearen eta ikuslearen arteko konplizitatea bilatuz.
espazio horretan hitzak, keinuak, begiradak eta isiltasunak
adierazpen-maila gorena lor dezakete eta aipaturiko tresnak
erritua eszenikoaren protagonista ditugu.

jesus obrero ikastetxea

jesus obrero ikastetxeak geure hizkuntzari eta heziketako euskal adarrari indarra emateko eta irakasle euskaltzalearen omenez, aurtun 'eskola arteko VII. bertso txapelketa-jon aizpuru saria' eta 'eskola arteko VII. euskal kanta txapelketa-jon aizpuru saria' antolatu ditu, honako arautegiaz:

www.j-obrero.es

arautegi orokorra > arabako lurraldean lh-ko 3. zikloa eta dbh-n aurtun matrikula egin duten ikasle guztiek parte hartu ahal izango dute

> sariak:

lh (3. zikloa)

1. saria: 90 euro & txapela

2. saria: 60 euro

3. saria: 30 euro

dbh

1. saria: 90 euro & txapela

2. saria: 60 euro

3. saria: 30 euro

> helbidea: jesus obrero institutu politetnikoa / VII. jon aizpuru bertso txapelketa edo VII. jon aizpuru euskal kantu lehiaketa (euskara mintegia) / frantzia kalea 32. 01001-gasteiz > lanak aurkezteko epea: 2006-2-3 > epaimahaiak bertsoari/kantari finalistak aukeratu dituzte. hauek otsailaren 11n 'aula fundacion' dendarabako kultur aretoan, 19:30ean izango den ospakizunean, beren lana kantatu edo interpretatu dute. orduan, lehiaketaren irabazleak nortzuk diren jakingo da

jon aizpuru saria: eskola arteko VII. bertso txapelketa

> bertso lanak orijinalak izango dira > gaia: 'ikaslearen bizimodua' > bi bertso zortziko txikian gutxiengo da lehiaketan parte hartzeko > ikasle batek ezin izango ditu bi lan baino gehiago aurkeztu > lanak idatziz aurkeztuko dira > aurkeztutako lanarekin batera itxitako sobre batean parteidearen datuak agertuko dira: izen-abizenak, adina, kurtsoa, helbidea, ikastetxea eta telefonoa > antolatzaileek lehiaketan parte hartuko duten ikasle guztioi bertsoen kopia gordetzeko aholkatzen diete, finalistak izanez gero, finalerako prestaketa errazteko

jon aizpuru saria: eskola arteko VII. euskal kanta lehiaketa

> kantak orijinalak edo interpretazioak izan daitezke. > ikastetxe batek ezin izango ditu bi kanta baino gehiago aurkeztu > kantaren grabazio sinplea, kantaren letra eta taldearen datuak (kantariak, adina, instrumentuak, kurtsoa, ikastetxea eta kontaktatzeko telefonoa) aurkeztuko dira

parral taberna-jantoki begetarianoa. x. urteurrena

s. ftzko. xabier kantoia 4. gasteiz

aurtengo abenduan 10 urte izango dira parral taberna zabaldu zutenetik eta nahiz eta arduradunek urtero urteurrena ospatu, aurtun gogo eta indar handiagoz aritu dira prestakuntza horretan. honatx egitaraua (ordua: 20.30 | 20.00, 1ean):

> **azaroak 29** > antzerkia > 'yo mismo con mi mecanismo' > umore gaua madrildik (juan aroca)

> **azaroak 30** > bakarkako kontzertu akustikoa

> **abenduak 1** > musika > the solanos (euren lehendabiziko diskoaren aurkezpena) + sagarroi

(2. diskoa lehenengoaz gasteizen) > > www.musikametak.com

> **abenduak 2** > afari-merienda/lunch + musika > once varas (gasteiz / prestatzen ari

diren diskoaren kanta berriak)

10 urtez astearteetako arrats-gauak musikaz, umorez, magiaz, tragediaz, alaitasunez... betetzen. rock, punk, folk, techno, heavy-a... musikariak, aktoreak, komikoak, ipuin-kontalariak, dragqueenak, txiste-kontalariak, magoak, poetak, malabaristak, abenturazaleak... parral, kulturaren erreferentzia gasteizen, euskal kulturarena bereiziki

'urrezko giltza' liburu-diskoa & ekitaldia

egileak:

-patxi zubizarreta (ardura literarioa) -joserra senperena (ardura musikala)

-jokin mitxelena (ilustrazioak) argitaletxea: erein 2005/azaroa

Haurrentzako ekitaldia:

abenduaren 3an > euskararen egunean

Gasteizko Europa Biltzar Tokian. 2 saiotan.

bidaia euskaraz euskharan-en eskutik

abenduan: iparraldera

autobusa ordaintzeko: 15 euro / janaria eraman

irteera: 9.00etan, las nieves-eko elizatik / itzulera: 21.00etan 945.288.275

durangoko azoka. egitaraua

abendua 7.

ordutegia: goizeko 10:30etik 20:00etara

11:00etan: kiki koko eta moko pailazoen

'alaitsu' izenburuko emanaldia azokan.

12:00etan: euskal herriko unibertsitateak

antolatutako hitzaldia azokako aretoan

gaia: 'euskal herriko unibertsitatea eta

euskera'

hizlaria: **juan ignacio perez iglesia,**

ehuko errektorea.

16:00etan: gerediaga elkarteak eta

artxibozain, liburuzain eta dokumentazainen

euskal elkartekoo (aldee) profil profesionalari

buruzko lan-taldearekin elkarlanean

antolatutako eztabaida azokako aretoan

gaia: 'liburutegiak eta jabegotza

intelektuala'

hasieran, **patricia riera**ren komunikazioa

bideo-hitzaldi bidez.

jarraian mahaingurua: **patricia riera, patxi**

presa, jorge jimenez, xavier mendiguren

elizegi, arantza arzamendi, karme

santamaria [moderatzaila]

19:00etan: sarrera hitzaldia azokako

aretoan

gaia: 'zentsura frankistaren irakurketa

gaurkotua'

hizlaria: **juan mari torrealdei**

22:00etan: pello ramirezen musika

emanaldia san agustin kultur gunean.

abendua 8.

ordutegia: goizeko 10:30etik 20:00etara

11:00etan: patxi zabaletak argitaratutako

'eneko haritzaren hilobia' liburuaren

aurkezpena azokako aretoan

12:30etan: hitzaldia azokako aretoan

gaia: 'zentsura bertsoaritzan edo

kristalezko eskalera'

hizlaria: **xabier paia**

17:00etan: basandere argitaletxeak

argitaratutako **jesus naveran**en 'hitzen

koba. euskeraren jatorria eta eraketa.

hiztegi etimologikoa' liburuaren aurkezpena

parte hartuko dute: **jesus naveran,**

alfonso lizardui, josu goiri (txalaparta)

18:30etan: hitzaldia azokako aretoan

gaia: 'eleiza eta zentsura'

hizlaria: **angel mari unzueta**

21:00etan: 'gauean argi' v. edizioa san

agustin kultur gunean

'2005 durangoko argizaiola omen-saria'

gotzon garate jaunari emango zaio.

ekitaldian zehar hainbat musikarik, idazlek,

bertsolarik, etabarrek parte hartuko dute

abendua 9.

ordutegia: goizeko 10:30etik 20:00etara

10:00etan: hezkuntza saileko irale

programak antolatutako hitzaldia azokako

aretoan [elkartegia]

gaia: 'azokako 40 urteko historia'

hizlaria: **anton mari aldekoa-otalora**

12:30etan: hitzaldia azokako aretoan

izenburua: 'hegoak ebaki gabeko kantua'

hizlaria: fermin muguruza

19:00etan: udalbide elkarte eta pamiela

argitaletxearen eskutik jimenio juriore

omen ekitaldia eta bere lan osotuen

aurkezpena

parte hartuko dute: **julian eizmendi**

[udalbide elkarte], roldan jimenio [jimenio

jurioren semea], patxi baztarrika [hizkuntza

politikarako sailburuordea], txema aranzaz

[pamiela argitaletxea]

20:00etan: berzitu txistuzale elkarteak

antolatuta 'txistua XXI. mendean' txistu

kontzertua santa anako eleizan (lan berrien

estreinaldia)

abendua 10.

ordutegia: goizeko 10:30etik 20:00etara

11:30etan: deustuko unibertsitateak

argitaratuta nerea mujikaren 'el pasado

reciente de durango y su comarca 1960-

1991' liburuaren aurkezpena azokako

aretoan

parte hartuko dute: **nerea mujika,**

deustuko unibertsitateko ordezkaria,

marian larrauri

12:30etan: barriketaldia azokako aretoan

gaia: 'komunikabideak eta zentsuraren

begia'

parteideak: **jose felix azurmendi,**

carmelo otaegi, izaskun ellakuriaga

(moderatzaila)

17:00etan: kuxkuxtu txarangaren

'kuxkuxtu irabazi arte' izenburuko azken

lanaren aurkezpena azokako aretoan

parte hartuko dute **kuxkuxtu txarangako**

kideak

19:00etan: durangoko jesuiten ikastetxeak

eta gerediaga elkarteak elkarlanean

antolatuta hitzaldia azokako aretoan

gaia: 'durangoko jesuiten ikastetxea

eta euskal kultura'

hizlaria: **anton m^a aldekoa-otalora**

abendua 11.

ordutegia: goizeko 10:30etik 20:00etara

11:30etan: arabako foru aldundiaren

eskutik andolin eguzkitzak eta maitena

etxebarriak idatzitako 'hizkuntzalaritza

orokorra: arazoak eta ikuspegiak' liburu

eta ignacio carrera eta imanola garciak

egindako 'legutiano aldeko euskera'

izeneko liburuak aurkeztuko dira

parteideak: **federico verastegi, henrike**

knörr, maitena etxebarria, imanola

garcia, ignacio carrera

12:30etan: durangoko jesuiten ikastetxeak

eta gerediaga elkarteak elkarlanean

antolatuta hitzaldia azokako aretoan

gaia: 'euskera, jesulagundia eta

jesulagunak'

hizlaria: **txema auzmendi**

[bagare euskal tokia]

ELKARTE GASTRONOMIKO EUSKALTZALE BERRIA

Elkarre gastronomiko baten kidea izan nahi duzu? Zure hamaiketakoak, askarritxoak, bazkariak, afariak bertan burutu nahi dituzu lasai-lasai? Zure lagunekin, sendiarekin, ezagunekin, areto propio batean egon nahi duzu? Eta gainera harreman hauek euskararen aldeko giro batean burutu nahi dituzu, beste euskaltzale batzuk ezagutuz eta euskaraz mintzatzeko aukerak zabalduz?

Hemendik aurrera aukera hori izan dezakezu. Kontua da Gasteizko hainbat euskaltzale elkarte gastronomiko-kultural bat egiteko biltzen hasiak garela. Oraingoz 25 lagun inguru elkartu gara baina gure helburua da gutxienez beste horrenbeste lagun topatzea.

Asmoa areto bat erostea da, eta sukalde industrial bat bertan jarritz elkarte gastronomiko bihurtzea. Aztertu dugunaren arabera, topatutako aretoa elkarte gastronomiko bihurtzeko ez dago inolako arazo legalik eta baldintza guztiak betetzen dira. Gainera egin beharreko konponketak ez lirateke oso handiak izango, lokala intsonorizatua baitago eta taberna bat izanez gaur egun, elkarreei ezartzen zaien burutu beharreko baldintza eta baimen guztiak betetzen dituelako.

Edozein elkarte gastronomiko gisan, kideak aretoaren jabe bihurtuko dira, eta

bakoitzak bere giltza edukiko du. Nola ez, elkarrearen izaera eta izena, bazkide kopurua, egin beharreko moldakuntzak, funtzionamendu arauak, estatutuak eta abarrekoak elkarte berriko kide guztiek zehaztuko dituzte. Printzipioz, gure proposamena da euskaltzalea izatea, lehentasuna ematen baitiogu euskararen aldekoa izateari (nahiz eta euskalduna izan ez).

Lokalaren salneurria, egin beharreko konponketak eta burutu beharreko tramite legalak kontuan harturik, 300.000 euro baino txikiagoa izatea espero dugu, erreferentziatzat har daiteke. Beraz, eta zuk ideia bat izateko, elkarte 50 lagunek osatuz gero bakoitzak 6.000 euro jarriko luke; bazkide gehiago izanez gero, jarri beharreko kopurua jaitsiko litzatekeelarik.

Beraz, elkarte gastronomiko berri horretan interesa baduzu, proiektu hau zure interesekoa bada, eta informazio gehiago nahi izanez gero, bi telefonotara (Fernando: 649.250.559, Alfonso: 678.338.695) jo dezakezu lehenbailehen, jakiteko zenbat lagunekin kontatu ahal daitekeen.

Bukatzeko, hurrengo bilkura abenduaren 14an, asteazkenean, egingo dugu, arratsaldeko 20.00etan Bagare Euskal Tokian. Bertara joanez ere informazio zehatza jasoko duzu. •

ba
ga
re
euskal
tokia

Kontua da Gasteizko hainbat euskaltzale elkarte gastronomiko-kultural bat egiteko biltzen hasiak garela.

Zure denda erotikoa

SEX



PITTILIN GORRI

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIA RTZUN

Obren egite eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziertagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30



MIKO

Izozkiak



bar • restaurante
albeniz

Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIJA (ARABA) • 945 430 073



XIXILU JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

UZTINTZA

KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA ETA BERRIA


HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

Xabier

taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23



Guetzal

Hegoamerikako jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko ertzean) Tfnoa: 945 25 03 52

BAR KLAKÉ



KUTXA, 2
TFNO. 143883
GASTEIZ


ARANBIZKARRA

ZURE AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz



eguneko menua



DIBUtec

Paper Berezikiak
Arte Ederretarako Materiala
Tink Jari original eta birziklatuak
Bulego Materiala
Enkoadernazioak
Plastifikazioak
Kopiak
Kamiseten Estampaketak

PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 • 945 23 30 01 • GASTEIZ • INPRIMATEGIA •



EGUR

Zurezko Teilatuak
Muntaiak Garabiarekin
eta Berrikuntzak

Padurea kalea 12, 16 Pab.
Goian Poligonoa, Legutiano
01171 Araba
Tel.: 627 417 747
Faka: 945 465 921
montajesegur@euskalnet.net

Zorionak eta urte berri on!



2006,
ametsak egia bihurtzeko
lan egiteko garaia

E4

eusko alkartasuna
euskal sozialdemokrazia

Argazki - Estudioa

Erramun

Heradio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02 01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91 01004



sarlu

Zure arropa eta oinetakoa!

www.sar-ludenda.com

Kutxillerra, 27 • Gasteiz • 945 260 710



BARRAL TABERNA

Eguzkitan, astelarenetik ostelara

JANTOKI BEGETARIANOAK

SAN FRANCISCO XABIERKOAKEN KANTOLA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL.: 945 27 65 33

TXUKUNA

EUSKAL HERRIKO EHUNAK:
bainu-batak, oihalak,
sukaldeko zapiak,
patchwork ohe-estalkiak...

Nafarroako errege-erreginen kalea, 11

HEGOALDE

Euskaltegia

Matrikula zaituz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

"Oraina interesatzen zait, hori delako egia bakarra"

benito lertxundi

Gernikan eta Tolosan grabatutako disko bikoitza kaleratu berri du Benito Lertxundik: '40 urtez ikasten egonak - zuzenean', Elkar diskoetxearen eskutik. Azken urteotan jotzen ibili den abestiak bildu ditu diskoan, hemeretzi guztira. 40 urtez musikan ibili ondotik, ikasten jarraitzen duela dio: "Bizitzak ez du gauza funtsezkoagorik ikastea baino. Zein da ausartuko dena mundu honetan jada ikasi beharreko guztia ikasi duela esaten?". Hilaren 22an Gasteizko Principal antzokian egongo da, diskoaren aurkezpena egiteko.

[edurne begiristain]

'40 urtez ikasten egonak' zuzeneko disko bikoitza kaleratu berri duzu. Zuk esana da ez duzula sekula asmorik izan zuzeneko disko bat grabatzeko. Hortaz, diskoetxeak eskatuta atera duzu, ala zergatik?

Aukera hori hor egon da beti, baina nik ez dut behin ere baloratu zuzeneko disko bat etxean edukitzea. Zuzena, zuzena da niretzat. Nik beti pentsatu dut etxean entzuteko estudioan egiten direla diskoak, eta zuzena nolabait lanbide honek duen beste atal bat dela. Beste alde batetik, iruditzen zitzaidan nahiko arazoak emango zizkidala zuzeneko grabaketak. Gero, egia esan, nire sorpresarako, nahiko erraz joan da. Diskoetxearen presioa izan ote dudana? Ba beno, bai, egia da diskoetxe bategi, Anjel Valdesek, askotan esaten zidala animatzeko. Eta azkenean hainbeste aldiz errepikatu zidan, egin dudala.

Nolakoa izan da esperientzia?

Grabazioa zela jakiteak nolabait gure emanaldia baldintzatu egin zuen. Hasteko, jendeak bazekien grabatu egin behar zirela Gernikako eta Tolosako emanaldiak, eta uste dut denok portatu ginela ez ohi bezala. Mikrofono asko zeuden, eszenatokian kontuz samar ibili behar genuen soinua zaintzeko... Orduan nahiz eta zuzena izan, diskoarekin gehiago pentsatu dugu publikoarekin baino. Horrek guztiak nolabait hoztasun puntu bat ere eman dio.

40 urtez ikasten egonak... Ikasten jarraitzen duzu?

Noski, ikasteari uzten diozun egunean, akabo! Akabo era guztietara gainera! Bizitzak ez du gauza funtsezkoagorik ikastea baino. Zein da ausartuko dena mundu honetan jada ikasi beharreko guztia ikasi duela esaten? Ikasi egunero ikasten da. Ikasi, arlo guztietan ikasten da, ez soilik lanbidean, bizitzak dituen arlo guztietan ere. Ikasteari uztea ez da posible.

Diskoaren izenburua, beraz, hortik dator?

Izenburuan eragin handiena duena da ni ez naizela behin ere gelditu. Beti izan dut sentsazio hori, beti ikasten egon behar dudala, hau ez dela inoiz bukatzen. Eta horretaz aparte, beti arreata deitu dit Zuberoako Maskaradako katxarrerok badituztela maskaradan esaldi batzuk oso >>



>> politik direnak: "Kauterrak! ez gara gu kauterrak! Gu pertzeginiak gara, ofizialiak, 40 urtez ikasten egonak!"... "Onak gara gero, gu, 40 urtez ikasten egonak gara eta...", esaten zieten herritarrei, berme moduan. Hori oso polita iruditu zitzaidan nolabait sentimendu hori borobiltzeko eta adierazteko.

Betiko kantekin batera, bi abesti berri ere sartu dituzu: 'Itsasoari begira' eta 'Itoitz'.

Niri gustatzen zait kantuak egin ahala, lehenbailehen zuzenera eramatea. Zuzena oso neurri polita izaten da hiru-lau hilabetetan ikusten duzulako kantuak zer egiten duen, kantuak mugitu egiten direlako. Grabatzen hasi baino bi hilabete eta erdi lehenago kantuak hor zeuden, eta azkar-azkar prestatu nituen, eta diskoan sartzea interesgarria izan zitekeela pentsatu nuen. Jon Maiak 'Itsasoari begira' ren letrak egin ditu. Eta 'Itoitz' kantari dagokionez, Itoitzeko lurrikarak zirela

medio, sentitu nuen lurrikara moduko bat nire gorputzean gerta litekeenaz pentsatzean.

Iraganari begira egindako diskoa dela esan daiteke. Etorkizuna iragana bezain oparoa ikusten duzu?

Egia esan etorkizunari buruz ez dakit deus. Nik orain arte bizi izan dudana bizi izan dut, eta gehienbat interesatzen zait oraina. Oraina delako egia bakarra. Iragana da egin dituzun gauzen erreberberazioa. Baina niri gaurkoa interesatzen zait. Beti esaten dut gaur izaten dakienak ez diola beldurrik izan behar geroari. Gaur izaten ez dakienak agian bihar ere ez du jakingo izaten. Baina gaur izaten dakienak, beti jakingo du une oroz izaten. Hori da lehenbiziko printzipioa.

Atzera begira jarrita, nola ikusten duzu zure ibilbidea? Zein ondorio ateratzen duzu?

Beti iraganaz galdetzen didatenean arazoak izaten ditut erantzuteko. Iragana kontatzeko

ez dut izaten gogo handirik. Gogoan ditut gauza batzuk, beste batzuk ez... Bizi izandako intentsitatearen arabera. Baina egia esan, atzera begiratzen dudanean oso modu aseptikoan begiratzen dut. Oso modu erlajatuan begiratzen diot, inportantziarik gabe. Gaur egungoa interesatzen zait niri.

Iraganari begiratzea gehiegi gustatzen ez bazaizu ere, pentsatzekoa da azken urteotan musikalki edo teknikoki asko ikasi duzula. Esperientzia hor dago.

Entzuten dudanean nire lehenengo diskoa konturatzen naiz orduko kantaria eta gaurkoa oso bi kantari desberdin direla. Ez da kantari bat, inondik ere. Bestetik, kuriosoa da aldaketak beti egiten direla oharkabea. Akaso, ez duzu aldaketarik proposatzen, baina aldatzen ari zara ezinbestean. Bizitzea bera aldatzea delako. Nik kantu berri bat jartzen dut zuzenean, eta igual hortik laupabost hilabetera entzuten dut eta txundituta geratzen naiz, konturatzen naizelako aurreneko egunean eman zuen modua eta orain oharkabea ematen duen moduaren artean alde handia dagoela. Ibiliaren ibilian bilatzen diozu oharkabea giro berria, espresio berria... Zu ez zara kontzienteki proposatzen ari aldaketa, baina gauzak bizitzeko modu desberdinak ezartzen dizkiozunean, kantua bera aldatu egiten zaizu. Hori da azken finean balio duena.

Zeintzuk dira abestiak egiteko dituzun inspirazio iturriak?

Agian inportantzia gehiago ematen diot modu espontaneoan gauzak egiteari. Abiapuntua baldin baduzu, eta hori oso sugerentea bada, hari horretatik tiraka hasten zara eta bide bat egin dezakezu. Baina abiapunturik ez baduzu, erogarria izaten da. Ni bolantean noanean, kantu dezente hasten ditut, ohean nagoela ere

benito lertxundi, euskal herriko parajeei musika jarri dien kantaria

Benito Lertxundi Orion (Gipuzkoa) jaio zen, 1942ko urtarrilaren 6an, errege egunez. Bera izan zen familia apal bateko bederatzi anai-arrebatatik azkena. Musikarekiko zaletasuna sehaskatik datorkiola esan daiteke. 1965ean, Ez Dok Amairu mugimendua mamitzen hasi zen. Hura, ikastoki eta esperimendu leku aparta izan zen Lertxundirentzat. 1971n kaleratu zuen bere lehen disko luzea, 'Benito Lertxundi' beste izenik gabe. Orduz geroztik, dozena diskotik gora kaleratu ditu. 'Erribera'tik hasita, 'Bizkaia maite'raino Euskal Herriko paisaia zabalari musika jarri dion kantaria dugu Benito Lertxundi.



burutapenak izaten ditut eta zerbait ateratzen bazait, grabatu egiten dut, hasiera bat behar dudalako... Baina aipatzekoa da azken aldi honetan badaukadala halako sentsazioa estatistikoa iruditzen zaidana. Hau da, ikusten dut beharbada gutxiengatik egitea kostatu zaizkidan kantak, ahalegin edo lanik gutxiengatik ematen dizkidan kantak izan direla, beharbada, kantarik arrakastatsuenak, errazen heldu direnak.

Beste artista eta musikariengandik asko ikasten duzu? Inspirazio iturri ere badira zuretzat?

Noski. Guk musika asko daukagu barneratuta, entzunda... Nik baditut ezinbesteko erreferentziak eta egiteko moduak. Dudarik gabe. Eta hori da azken finean giza kondizioaren handitasuna. Hori ezinbestekoa da. Bakoitzak ekartzen du bere tendentzia. Nik beti esaten dut sentsibiltateak, gustuak, arketipoak izaten direla. Arketipoak egoten dira gizarte guztietan. Batek izaten ditu bere gustuak eta bere joerak, eta mundura ateratzen denean, topo egiten du gustu edo izateko modu arketipo horrekin. Ezinbestean, besteek egiten dituzten gauzak zureak ere



izaten dira, zureganatu egiten dituzu.

Gero eta gutxiago agertzen zara publiko aurrean, gero eta tarte gehiago dago disko batetik bestera. Zergatik?

Egia esan beti nago publikoan. Zuzeneko emanaldiak ez ditut eten azken 40 urteotan. Gertatzen dena da diskoak ateratzeko garaian nik nire maniak ditudala, apur bat lotsatia naizela, disko bat ezin dudala kaleratu halakorik hala, denbora bat eman behar diodan. Nik kanta bat egiten dudanean urrutitik begiratu behar diot, ortzimugari begiratzen zaion moduan. Bestela, hurbil baldin badaukat, perspektiba falta zait eta ez nago behin ere seguru egin dudana horrekin. Bultzatu egin behar diot, eta horrek esan nahi du kanta bat egiten dudanean utzi egin behar dudala handik hila edo bi hilabetera kanta horrek zer esaten didan ikusteko... Askotan nire inpresioa aldatu egiten delako. Eta horrek guztiak denbora kentzen du. Halako batean konturatzen zarenean buelta gehiagorik ez duela horrek, eta atera egin behar duzula, denbora joan egiten da.

Zure kantaldietan belaunaldi desberdinak ikusten dira: aiton-amonak, gurasoak, seme-alabak...

Nola azaltzen duzu hori?

Berrogei urte pasatu badituzu kantuan, eta nolabait esateko 40 urte horietan egin dituzun kantuek nolabaiteko lur egokian erori behar badute, nahi eta nahi ez pasa behar dute belaunaldiz. Arrazoia da lehen esan dudana: beharbada nik kanporatzen dut arketipo bat musika eta kantuen bidez. Eta arketipo horiek ematen dira belaunaldi desberdinetan. Erantzuna izan liteke agian nik kanporatzen dudana arketipo hori nahiko komunikatzeko gai dela. Agian hori da erantzuna. Askotan esaten didate beti ibiltzen naizela nire estiloari oso fidelki. Nik egia esan ez dakit nire estiloa zein den, baina nire arketipoa



Bizkaia maite, desagertzeko zorian

Pasadizo kurioa kontatu digu Benitok. Elkarrizketan aipatutako estatistika horrekin (garrantzirik ematen ez dien kantuak izaten direla azkenean arrakastatsuenak) lotutako bitxikeria. Kasu honetan abesti oso ezagun batekin gertatu zitzaien. Honakoa kontatu diguna: "Lehenbiziko disko bikoitza egin nuenean gertatu zen, 'Zuberoa eta Askatasunaren semea', biniloa zen hura. Biniloak prentsatu egin behar zirenez, 21 edo 22 minutuko topea zuten aldeek, orratzak ez zuelako gehiago ematen. Baina niri alde bat 23 minutukoa atera zitzaidan. Eta, noski, fabrikako lehen proba egin genuenean orratzak salto egiten zuen. Handik esan ziguten soluzioa zela kanta bat kentzea. Bildu ginen eta hautatu genuen kendu behar genuen kanta. Baina halako batean bidali ziguten beste prentsatu bat kanta kendu barik, arazoak ematen ez zuena. Fabrikak ahalegin bat eginda, kantua salbatu zuten. Diskoa atera zen, eta guk kanporatu nahi genuen kanta hasi zen asko entzuten: 'Bizkaia maite' zen kanta. Pentsa!, unean ez genuen baloratu, kendu nahi egiteraino..."

sentitzeko moduari beti fidelki jarraitu diot. Korrontek badira kanpoan, baina oso inportantea da zeure korrontean eroso egotea. Nire indarrak edo kemenak hor isuri izan nahi ditut gehiago, janzkera aldaketan ibiltzea baino. •

[saioa fdz. de arangiz & maite lekue]

Gasteiz, hiri modernoa al da?

Gasteiz 2005. Gero eta etxebizitza altuagoak gure paisaian, tranbiaren proiektua gure gainean, gero eta museo modernoagoak, diseinuzko komertzio eta jatetxe berriak nonahi... Hauek guztiek egiten al dute Gasteiz hiri modernoa? Kalera atera gara jendeak duen iritzia jasotzera.

1. Gasteiz hiri modernoa dela uste al duzu? Zergatik?
2. Zure ustez zer eskaintzen dio modernitateak hiritarrari?
3. Modernitatea ona al da?



Miren Uria, irakaslea

1. Bai, nahiko modernoa da Gasteiz gauza berri ugari dituelako, nahiz eta zahar ikutuak ere oraindik mantendu. Etxebizitzetan nabari da oso hiriaren modernitatea.
2. Etxebizitzei itxura modernoa eskaintzen die eta publizitate gehiegi egotea baimentzen du.
3. Hainbesteko publizitateak ez dio mesederik egiten hiriari.

Eneko Ugarte, ikus-entzunezko teknikaria

1. Bai, gero eta modernoagoak gara eta gasteiztarrok izan dugun herritar kutsua galtzen ari gara. Gauza eta bide berrietara irekitzen ari gara gero eta gehiago.
2. Batez ere irekiagoak izatea, kosmopolitagoak eta kulturen arteko nahasketak baimentzea.
3. Nire ustez bai, dudarik gabe. Gure sustraiak eta ohiturak alde batera utzi gabe, berria eta onuragarria den guztia ongi etorria da.



Mario Reguera, injinerua

1. Bai hiri modernoa da, hiritarrei eskaintzen dizkien erosotasunengatik.
2. Batez ere berrikuntza teknologikoa.
3. Bai gure bizitza eroso egiten duen heinean modernitatea onuragarria da.



IDAZLEENZUTABEA

ELSKARA EUROPAN

[jon arretxe]



Historikoa izan ei da duela egun batzuk Europako ez dakitzein organotan gertatutakoa, alegia, euskararen erabilera ofiziala lehen aldiz, ordu arte mugatuta zeukan eremuan. Ez dakitzein politiko euskaldunek berba hunkitu eta hunkigarri batzuk bota zituen mikrofonoen aurrean, eta hurrengo egunetan hainbat irratitako tertulietan jardun dute albiste pozgarriaz, baita egunkarietan ere, eta denok oso kontent ipini gara, urrats erabakigarria izan baita, dirudienez, euskararen etorkizunerako.

Bale, ederto, berri ona dela uste dugu euskaltzale guztiok, baina ahatz gaitezen pixka baten Europaz, itzul gaitezen etxera eta azter dezagun zer gertatzen den Euskal Herrian eguneroko bizitzan, duela hogeitau urte etorkizuntzat jotzen genuen mende hasiera honetan: Gasteizen, esaterako, Santiago nahiz Txagorritxuko ospitaleetan zeozar euskaraz galdetuz gero memelo aurpegiaz begiratzen dizute; antzeko zerbait gertatzen da zenbait fakultatetako sarreretan, eta beste horrenbeste esan liteke kontserbatorio, hizkuntza-eskola edo beste hainbat zentro publikori buruz. Eta Boulevard-en moduko saltoki-gune pribatuetara joz gero, zer esanik ez. Zorionekoa zara "perdona pero..." gisako erantzuna jasoz gero euskaraz egiten baduzu "informazioa" dioen lekuetan, ze normalena martziano bati bezala begiratzea da, edo "cómo???" antzekoak entzutea. Eta halako saltokietan topatzen diren oharrak, gainera, edo gaztelera hutsez daude edo sasielebidun, akatsez beteta euskarazko bertsioan.

Miseria zaharrak dira hauek, gogaitu arte aipatutakoak. Niri bost axola euskararen folklorkeriazko erabilera European, baldin eta Euskal Herrian ezin badugu oraindik normaltasunez erabili.

ANDONI PORTILLA

"Trebiñon ezin da euskaraz bizi, ezta Gasteizen ere"

Trebiñarra da Andoni Portilla. Bertan jaio eta bizi da. Sarasun jaio zen duela 39 urte, eta orain Bajaurin du bizilekua. Okina da lanbidez, Sarasun okindegia dauka, eta herriz herriz ogia banatu egiten du egunero. Ikasketak Gasteizen burutu zituen: elektronika eta lorazaintza. Euskara ere Arabako hiriburuan ikasi zuen. AEKn hiru bat urte eman zituen, eta gerora, Trebiñon ere gau eskola batean aritu zen 5-6 urtez.

[edurne begiristain]

- Duzun biziorik handiena? Erretzea.
- Bertuterik? Kar, kar!, egia esan, ez dakit...
- Akatsik? Asko ditut... Akaso, beti berandu iristen naizela.
- Zer eskatzen diozu bizitzari? Zoriontsu izatea, ongi egotea.
- Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Gezurrak.
- Egunkari bat. Gara.
- Telebista saio bat. Pelikulak atsegin ditut.
- Geu aldizkaria eta elkartearen berri? Bai. Gasteizen ezagutu nituen. Baina aldizkaria ez dut jasotzen.
- Zeri diozu beldurra? Bakardadeari.
- Oporrak non eta zertarako? Edonon. Denetarik egiteko: jendea eta kulturak ezagutzeko, atsedean hartzeko...
- Nora ez zinateke joango? Printzipioz leku guztietara joango nintzateke. Baina aukeratzekotan, AEBetara agian ez.
- Eguna ala gaua? Eguna. Gauetz lan

egin behar dut eta!

- Herriko gaua ala Gasteizkoa? Gasteizkoa. Herrian ez dago girorik.
- Liburu bat. Cien años de soledad.
- Pelikula bat. El muro de Pink Floyd.
- Edari bat. Ardoa.
- Janari bat. Orburuak.
- Kolore bat. Guztiak... baina gehien, gorria.
- Musikari bat. Benito Lertxundi.
- Zer da Bajaurik duen onena? Lasaitasuna. Inguruen edertasuna. Frontoia, txikia eta polita da.
- Eta txarrena? Lanetik urrun dagoela.
- Eta Gasteizko alderik onena? Txikia dela.
- Eta txarrena? Hiri bat dela.
- Euskaraz bizi al daiteke Trebiñon? Ez.
- Eta Gasteizen? Ezta ere.
- Amets bat. Nire herrian, Sarasun, etxe bat izatea eta lan egin gabe bertan bizi ahal izatea.
- Amesgaizto bat. Maite ditudan pertsonei zerbait txarra gertatzea.
- Zer eskatzen du herriak? Askatasuna.

✓ Aitortu digunez, ez du euskara gehiegi praktikatzen, baina lagun euskaldunekin behintzat hitz egiten du noiz edo noiz. Gainera, zaila da bere ustez bai Trebiñon bai Gasteizen euskaraz bizitzea.

✓ Alaitzat eta lasaitzat du bere burua.

✓ Zaletasunak: menditik txangoak egitea, telebista ikustea eta irakurtzea. Gauetz ateratzea ere gustuko du, baina bere lanbideak ez dio parada gehiegirik ematen. Alta, aukeran, Gasteizko giroa nahiago, bere herrian ez baitago parranda egiteko modurik.



ZURE HARATEGIAK

Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ

XABIER AIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak



IRVSTA TABERNA

poteo eta pintxoak

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65

Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

ARTEPAN

Artisau

Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37

01005 GASTEIZ



LA RIOJANA

jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazulafxoak

Aiztogile kalea (Kurru), 33 tfnoa. 945 25 02 39



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14

(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ

titanioa² = Softitanium

titanioa baino askoz gehiago

Softitanium

Orain 120€ tan

+malgutasuna+erresistentzia+titanioa

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ



AZAO Plataforma, Alde Zaharraren Aldeko Oihua



AZAO plataformak Alde Zaharraren Zaharberri-
tzeko planari (PERI) aurre egiteko bidea ireki
du. Ekaina aldean hasi zen AZAO martxan
eta bere baitan Alde Zaharreko hainbat auzo
elkarte, giza talde eta bizilagunen indarrak
batzea ezinbestekoa eta premiazkoa ikusi dute
Gasteizko auzo honen biziraupenerako.



[maite lekue]

Horrexegatik, auzoak Zaharberitzeko Plan baten beharra duela argi ikusten dute mugimenduaren partaideek, baina ez aldiz, PERIaren perspektibatik, auzokoen beharrei erantzungo dien proposamen batean baizik. Oro har, PERIari aurre egiteko proposamen alternatibo bat eskainiz sortu zen AZAO, bizilagunak jakinaren gainean jartzeko eta auzoaren etorkizuna definituko duen bizilagunen parte-hartzea ahalbidetzeko ekintza bideak eskainiz.

AZAO PLATAFORMA, PARTAIDEAK ETA ILDO NAGUSIAK

AZAO Plataforma ondorengo elkarte eta kolektibo ezberdin eta askotarikoek osatzen dute gaur egun: Alde Zaharreko auzo elkarteak: Gasteiz Txiki, Barrenkale eta Ladera Oeste. Giza Taldeak: Auzoplan, Hiesaren kontrako Batzordea, Saregune, Gasteizko Gazte Asanblada, Gaia Fundazioa, STEE-EILAS eta Zapateneo Kultur Elkartea.

AZAO plataforma osatzen duten auzo elkarteak eta taldeen artean lortutako adostasunak PERI planari loturiko hiru alderdi nagusi hauek ditu oinarri:

PERIaren lantzean auzokideen inolako parte-hartzea ez da sustatu.

Alde Zaharreko Auzokideei PERI planaren inguruko argibide ilunak eta eskasak eskaini zaizkie.

PERI planak ez du Alde Zaharrak dituen arazo sozial larriei aurre egiteko inolako politikarik, ez eta bere baitan diru partidari hartzen ere.

AUZOKIDEEN PARTE-HARTZE ZUZENA HELBURU

AZAO plataformaren ibilbidean, Azaroaren 7an Goiuri jauregian egindako asanblada orokorra beronen abiapuntua dugu. 150 bizilagun bildu ziren, hein handi batean gazte jendea, Alde Zaharraren etorkizunaz temati agertu zirenak guztiak ere. Bertan AZAO plataforma publikoki aurkeztu zitzaizen Alde Zaharreko bizilagun guztiei; haiekin lan egiteko gonbidapena luzatzen zen aldi berean. Bide honetan bizilagunen parte-hartze zuzena bermatu nahi dute etorkizunean, auzotarrak dituen kezka eta behar nagusiak ezagutzeko xedez. Horretarako auzoaren Birgaitze Soziala izenburupean burututako zirriborroa agertu zuten, non arlo eta giza sektore desberdinetatik, auzoaren gabeziak, beharrak eta desioak jasotzen dituen behin-behineko txostena jakinarazi zutelarik. Baina oraingoz auzoaren giza errealitatea jasotzen duen zirriborroa besterik ez dago egin. Asanbladara hurreratu zirenei eta auzokide orori haien kezka eta beharrak plazaratzeko proposamenen orria luzatu zitzaizen eta bi hileren buruan jasotako iritzia eta proposamenekin Alde Zaharraren Birgaitze Soziala

Alde Zaharraren Birgaitze Sozialerako Zirriborroaren

Osasunarekin loturikoak

- Osasun Zentroa handitu, bai eta langile taldea ere.
- Osasun Zentro berria eraiki eta mugikortasun arazoak duen jendearentzat zentroaren sarbidea egokitu.
- Hirugarren adineko populazioari, Alde Zaharreko lagin garrantzitsua, geriatrian berezitutako osasun zentroa eskaini.
- Alde Zaharrean bizi den atzeritar komunitateak osasun zentroan komunikazio arazorik ez izateko itzultzaileak jarri.

Inmigrazioa

- Kulturartekotasuna bultzatzen duten ekimenek laguntza eman.
- Pertsona etorkinentzako alokairuetan gertatzen diren bidegabekeriak ekiditeko neurriak ezarri.
- Gizarte Zerbitzuen arreta handiagoa eta pertsona etorkinak erroldatzeko bideak erraztu.
- Bertako populazioarentzako kanpainak garatu eta auzoko elkarteetara sartzea sustatu.

Etxebizitza

- Baliabiderik gabeko familientzat haien etxeak birgaitzeko %100eko dirulaguntzak, alde batetik; bestalde, birgaitzerako dirulaguntzak handitu eta hauek lortzeko oztopoak deuseztu.
- Etxebizitza hutsekin bukatu, auzoan gutxi ez direnak, eta auzoaren arkitektura errespetatzen dutenak eraiki.
- Babes sozialerako etxebizitzak banatzeko garaian jendeak auzoan daraman denbora kontuan hartzea.
- Inolako jabetza kentzerik ez suertatzea eta espekulazioarekin amaitzea.



jabi agillo eta noelia ruiz, azao-ko kideak gasteizko alde zaharreko buruileria plazan

izeneko behin betiko testua osotzeko asmoa dute.

ETORKIZUNEN BIDEA

Auzokideen beharrak jasota eta auzokideak plataformaren garapenean duen garrantzia azpimarratuta, AZAOk sozialki eta publikoki hizketakide eta eragilea izan nahi du Alde Zaharraren etorkizunarekin zerikusia izango duten gai orotan. Behin Alde Zaharraren Birgaitze soziala izango denaren testua burututa, hiriko giza eragile eta alderdi politikoei aurkeztu zaie lehenik, baita udal taldeei ere, Alde Zaharraren errealitatea ezagututa haren alde lan egiten has daitezen. Anartean, eta auzokideen proposamenen

bilketak dirauen bitartean, AZAO kalean izango da bai jendearen inplikazioa eta motibazio sustatuz bai jendearen parte-hartzea bultzatuz ekintza desberdinen bidez.

NOLA IKUSTEN DU AZAOK PERIA?

Proiektuaren garapena iluntasunetik gauzatu dute, urrundik, auzokideen parte-hartzerik gabe, politikarien bulegoetatik, eta horrela ez dira auzoetarako planak diseinatzen.

PERIak Alde Zaharraren Birgaitze Plana promozio turistiko eta komertzial bezala ulertzen du.

Udalaren hautua Alde Zaharraren alderdi turistikoa suspertzean datza, auzoak dituen behar eta arazo sozialei jaramonik egin gabe.

PERIak Alde Zaharrean sortzen den jende topagunea deuseztu nahi du, horretarako Gaztetxea bota, auzoko jendea lekuz aldatu, desjabetzeak gauzatu, elkarteak beste auzo batzuetara eraman... bezalako aukerak proposatzen ditu.

Alde Zaharrean dirauten denda txiki eta tabernen orde, PERIak jatetxe moderno, multinazionalen frankiziak eta hotel handiak hobesten ditu bere planean, Alde Zaharrak behar duen birgaitze sozialari so egin gabe.

Honen aurrean eta Alde Zaharrak dituen behar eta premia larrien adibide, Alde Zaharraren errealitatearen isla direnak, AZAO plataformak gauzatu duen zirriborroaren laburpen txikia hementxe doa. •

zertzelada batzuk

Hezkuntza

-Ramon Bajo ikastetxerari ingurune egokia eskaini, egun zonalde librerik ez duelako. Aldi berean, Ramon Bajok eredu linguistiko guztiak eskaini behar ditu.

-Ezinbestekoa da gurasoen sentsibilizazioa, Alde Zaharreko eskola seme-alabak eramateko leku naturala dela uler dezaten.

Egoera Ekonomikoarekin loturikoak

-Gizarte laguntzak aurrekontu mugarik gabe ziurtatu. Alde Zaharrean bizi den jendearen portzentaia altu batek giza laguntzak behar ditu bizi ahal izateko.

-Auzoan formaziorako eta lana sortzeko proiektuak egin.

Ekipamenduak eta gizarte baliabideak

-Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langile taldeak handitu eta lana eta familia uztartzeko neurri eta baliabideak eman.

-Pertsona nagusiei zuzendutako programak gehitu eta hauen mugikortasuna erraztu.

-Bilerak egiteko gelak, ekitaldietarako aretoak eta Landatxo Gizarte Etxeko azpiegitura guztiak auzotarrei laga.

Espazio libreak, parkeak eta gune berdeak

-Gune berdeak eta haur parkeak sortu Fray Zacarias eta Santa Maria kaleen artean.

-Buruileria plazaren izaera publikoa berreskuratu, lorategi eta eserlekuekin birgaituz. Espazio libreak sortu, ez aldi, pribatuak.

PELLO ZABALA

"Hamar urterekin etorri nintzen Arantzazura, fraile izateko asmoz bainoago Arantzazutik gertu egoteko asmoarekin"

Pello Zabala fraile frantziskarraren bizimodua ezagutzeko parada eman digu amezketarra Gasteizen urria eta abendua bitartean meteorologia ikastaroa ematera etorri izanak. Alaia eta komunikatzaile atsegina, Euskal Herriko eguraldi gizona eguraldiaz mintzatu da, bai eta bere zaletasuneei buruz ere.

-amezketan jaioa 1943an

-arantzazura frailea izateko asmoz 1953an iritsi

-euskadi irratian hasi zen musika programa egiten eta oster bertan ere eguraldi iragarpenak ematen hasi zen

[josune v. de mendizabal]

Pello Zabala, apaiz, eguraldi gizon ala musikan aditua, zein ordenatan?

Arantzazuko frailea. Frantziskotarrok beti izan dugu herriarekin eta naturarekin lotura. Nolabait gure betebeharra eta jainkoarekiko harremana bi mundu hauen artean gauzatu ditugu, natura eta herria, alegia. Natura eta herria asko maite ditugu frantziskotarrok, eta azken hau bere berezitasunekin, hau da, Euskal Herria izanik bere euskara eta kulturarekin.

Zazpi urte zenituela bakarrik, liluratuta geratu zinen Arantzazurekin eta apaiza izan nahi zenuela orduan ere erabaki zenuen. Gaurko neska-mutiek ez dute horrelako nahirik...

Hau ulertzeko lehengo mundura bueltatu behar da. Gerra osteko herrietako eskoletan ere euskara debekatua zegoen. Nire familia asko etortzen zen hona, garai hartan bestelako txangorik ez zegoen, eskolan ere Donostiara eta Igeldora joaten ginen, besterik ez. Gu baserrikoak ginen, nahiko baserri kaletarra bazen ere hura, eta bederatzi urte nituela aita hil zitzaigun. Guztira bost anai-arreba ginen, ni helduena eta ordurako Arantzazun izena emanda nuen. Askok gustatzen zitzaidan fraileek herriarekin zeukaten harremana. Hortaz, hamar urterekin Arantzazura etorri nintzen, frailea izateko asmoz baino gehiago Arantzazutik gertu egoteko asmoz.

Nola hasi zinen eguraldiari buruzko iragarpenak egiten?

Musikaren bidez sartu nintzen Euskadi

✓ natura eta herria asko maite ditugu frantziskotarrok, eta azken hau bere berezitasunekin, hau da, euskal herria izanik bere euskara eta kulturarekin

✓ tenporak euskal herriko altxor berezia dira, bestelako herrietan ez da hau gertatzen eta; euskaldunok erlijio ospakizunen eta eguraldiaren arteko loturatxoak topatu baitugu tenporetan

✓ ilargiari jarraitu beharko genioke gehiago lehenagokoek egiten zuten bezala, eta ez egungo 30/31 eguneko egutegiari. ostiralean hasitako ilargiak beti hilabete txarra ematen du...

batbitan



[arg.: ibon s. de olazagoitia]

Irratian, oraindik ETB existitzen ez zenean...Musika programak egiten, nahiz eta horren aditasuna ez da eguraldiarena bezain zabala, baizik eta urrixeagoa... (barre egiten du). Han lanean nengoela esan zidaten irratian eta euskaraz eguraldia emateko ez zegoela inor, eta zergatik ez? "Animatu hadi!" eta irratia tiraka, apurka-apurka, sartu nintzen mundu honetan.

Tenporetan oinarritzen zara eguraldi iragarpenak egiteko orduan, zergatik?

Meteorologiak asko aurreratu du gaur egungo aurrerapen teknologikoak direla eta, eta ez soilik egunetik egunekoa, baizik eta egunean ere, ordutik ordukoa ematen baita. Beti dago hor prestasun hori. Internet eta telebista erakusleio on bat dira horretarako. Baina lehen aipatu dudana herria eta naturarekiko lotura hori kontuan hartuta, beti ibiltzen nintzen ni tenporak zer ziren ikusi nahian. Data ziurrik ez zegoen tenporei begiratzeko eta bakoitzak bereari begiraten zioenez asmatzerik ez zegoen. Ondorioz, hasieran borroka handiak izan nituen nik, nahastu besterik ez nuela egiten eta (barre egiten du)... Tenporak Euskal Herriko altxor berezia dira, bestelako herrietan ez da hau gertatzen eta; euskaldunok erlijio ospakizunen eta eguraldiaren arteko loturatxoak topatu baitugu tenporetan eta hori da gure meritua.

Aiton-amonak telebistak zenbaitetan iragartzen duen baino finago dabilta. Garai bateko naturarekiko harre-

manaren zoriz izan daiteke?

Bai, zalantzarik ez. Askok begiraten diote ilargiaren martxari. Ilargiari jarraitu beharko genioke gehiago lehenagokoek egiten zuten bezala, eta ez egungo 30/31 eguneko egutegiari. Ostiralean hasitako ilargiak beti hilabete txarra ematen du, eta horrelako kontuak daude, baina horiei begira egotea ematen du egun txorakeriak direla.

Eta ebakuntzarik egin dietenek eguraldi aldaketa suma dezaketela esaten dutenean sinesgarritasunik al du?

Ebakuntzan hezurren bat ikutu delako izaten da hori. Badute beren sinesgarritasun puntua. Batez ere, ebakuntza hori ilargi egun txarrean izan bada. Horrek sentiberatasun ikaragarria du eta hori ez da sendatuko. Ilargiaren gorabeherak markatuta geratzen dira.

Eguzkiaren presentziaren arabera pozago edo makalago dagoena ere badago. Eraginik al du eguraldiak gure egoera animikoan?

Bai, ikaragarria. Eguzkiaren orekak bizia mantentzen du. Oreka eguzkiaren mesede eta erruz gertatzen da eta gero ere, noski, klima aldaketaren kontuak ere eragina dauka. Horregatik, amalurra eta natura kontuan hartu behar dira eta urtetan amalurrak jaso duen zenbaterainoko kalteak ondorioak dakartza egun. Guk eguraldiarekiko ezin dezakegu ezer egin, baina bai klimarekiko. Beste kontzientzia bat dago orain.

noiz begiratu tenporei?

Urtaro berrien aurreko asteen finkaturiko datak dira. Lehengo garaietan lurarekiko lanetik bizitzen zen heinean eta, elizkizunen arabera ezartzen ziren data horiek. Hau da, neguaren aurreko asteen, udazkenaren aurreko asteen, eta udaberri eta udaren aurreko asteetan izan ohi ziren. Baina azken bi tenpora hauek Garizuma eta Paskuaren arabera mugitu dira; inauteriei begira uler dezakegu hau, hots, batzuetan otsailean eta beste batzuetan martxoan direlako.

Argi dago eguraldiak gero eta interes gehiago pizten duela jendearengan. Argi dago apaizak baino meteorologo gehiago izango direla datozen belaunaldietan?

Horiek garaian garaiko kontuak dira. Gaur ez da normala, gu garai hartan etorri ginen bezala etortzea. Orain gazte bat etorriko balitz esango genioke: bai, bai, hazi, egin hadi gizon eta gero ikusiko dugu... Ez dugu sinesten, eta fraile bizitzarako ere norbait etortzen bada ere... mesfidantzaz hartzen dugu, ez baita ohikoa, eta ez da jendea askotan erabat ondo gobernatzen dena. Lehenagoko komentuak unibertsitateak baziren, kultur guneak, eta horrez gainera, erlijioa lantzeko tokiak dira. Hau dena gaur egun badago komentutik kanpo non aurkitu. Eta garaiei dagokienez, kristauak aldaketa eman duten bezala elizak ere eman beharko lukeela pentsatzen dut.

Artepan gozotegi-okindegia, arteaz

Amarika & Kukuxumusu

Bonboi eta trufen itxura erakargarriagoa egitea lortu du oraingoan Artepan okindegi eta gozotegiak aurkeztu berri duen 'Imajinak' izeneko bildumaren metalezko kutxekin. Artea eta artisautza eskutik emanda datoz, batetik, Fernando de Amarika pintore gasteiztarrek 1905ean margoturiko 'La ciudad del sol' lanak, eta bestetik, Kukuxumusuk propio diseinaturiko irudiek eduki ezin goxoagoa bilduz.

[josune v. de mendizabal]



Arteaz jantzi du, beraz, Artepan enpresa gasteiztarrek bere gozoki artisautza, "gertu daukagun arteari omenaldi duina eskainiz, hala iraganekoari, nola gaurkoari". Biak ala biak sail luze baten hastapena baino ez izateko asmoz: "asmoa badago aurrerago bildumarekin jarraitzeko eta beste irudiak dituzten kutxak kaleratzeko, baina goizegi da oraindik hori noiz izango den aurreratzeko", diosku Txema Pascual Artepaneko zuzendariak. Bildumaren edukia, kalitate aparteko bonboi eta trufen sorta.

Artepan gozotegi eta okidengia enpresa familiarra da, Gasteizen 22 urte daramatzana, hain justu ere. Txema Pascual da egun zuzendaria. Burlatakoak gogoratzen du nola duela 22 urte bere

Txema Pascual, Artepaneko zuzendaria

• Euskal Herriko herrialde guztiek gozokietan euren berezitasunak dituztela kontuan harturik, nola baloratuko zenuke Gasteizko kalitatea?

Gasteizek ospea dauka batez ere gozokietan, oso gozo artisauak direlako bertakoak. Hala ere, ematen du azkenaldi honetan zerbait aldatzen ari dela kontua. Izan ere, hainbat gozotegi itxi dituzte bertan, txikiak diren arren, eta agian horrexegatik hain zuzen ere ez dira ondo ibili. Baina, nire iritzia profesionalari dagokionez denetarik dago, batzuk pixkat zaharkituta geratu dira eta nire ustetan gauza berriak egin behar dira. Gainera, kontsumitzaileen gustuak ere aldatzen hasiak dira.

• Eta zertan aldatu dira kontsumitzaileen gustuak?

Lehen pastelak astunagoak ziren eta orain jendeak zerbait arinagoa eskatzen du. Adibidez, bizkotxoa krema eta glassarekin, buff, agian mendira joateko egokia izan daiteke, baina orokorrean jendeak gauza arinagoak atsegin ditu.

• Zein da Artepaneko espezialitatea?

Hojaldrezko tarta. Hauxe da batez ere gure famatuena, edo gehien saltzen dena, pantxina delakoa.

• Eta nola moldatu tradiziozko gozokien artisautza gaurko gustuetara?

Gure ustetan gauza berriak sortu behar dira eta merkatuan birziklatu. Ondorioz,

azken bidaiari Bartzelonan izan ginen turroi berri batzuk nola egiten ziren ikasten. Gaur egun dauden gustu eta ohitura berriekin joan eta mugitu beharra dagoela iruditzen zait eta.

• Zein da zure jaki gozo gustukoena?

Guk egiten dugunetik gehien gustatzen zaidana Euskal Pastela da.

• Euskal Pastela tipikoa da Euskal Herri osoan, baina gozotegi batetik bestera errezeta asko alda daiteke, ezta?

Bai, hala da, bakoitzak likore bat bota diezaioke edo intxaurrak edo bere erara egin, azken finean. Gure kasuan, rona bota beharrean *ternauz* izeneko likorea botatzen diogu. Gure formula Iparraldekoa

kiribildutako gozoak: Imajinak bilduma

aitak, okirna zenak, herrialdeko hiriburuan ezarri zuen enpresa. "1982an izan zen -adierazten du Txemak-. Ni gaztea nintzen eta 17 urterekin udan nentorren negozioan laguntzera. Gero kazetaritza ikasten hasi nintzen Iruñean eta beste zenbait kontu, baina azkenean erabaki behar izan nuen jarraitu edo ez negozio familiarrekin, eta Gasteiza etorri nintzen". Txemak aitortzen duenez, "erabakia lana gustatzen zitzaidalako hartu nuen". Egun enpresan 50 lagun daude eta Txemak azpimarratzen duenez, "gurean harremanak, dendariekin nahiz bezeroarekin, oso inportanteak dira. Guk lantzen duguna giza kapitala da eta ez giza katea".

(Informazio gehiago: www.artepan.com)



gozokiak hilez hile

"Gustatu edo ez eliza edo erlijioaren egutegiari lotuta doa gozotegien egutegia beti", azpimarratzen du Txema Pascualek. Hauxe da gozotegiek orokorrean ezinbestekoa duten ekoizpen egutegia:

Urtarrilean

> Erregeetako erroskoa

Otsailean

> San Blaseko erroskillak

Martxoan

> inauterietatik aste santura bitartera (eta nahiz eta berez bertako ohiturarik ez izan)

> monak edo txokolatzeko arrautzak eta figurak, ogi- eta esne-torradak

Apirilean

> Prudentzio Deuna tarta

Abuztua

> Andre Maria Zuria tarta

Urrian

> buñueloak

Azaroan

> santu-hezurtxoak

Abenduan

> turroiak, mazapanak, girlatxeak, polboroiak...

da, hainbat urte dira egiten ikasi genuela. Izan ere, Artepan bera baino zaharragoa da, ehun urte izango ditu edo. Betidanik egin dugu eta horrela mantentzen dugu, seguruenik besteek beste modu batez egingo duten bezala.

• Noiz erosten du jendeak gehiago? Ohiturei jarraitzen al die?

Gabonak dira zalantza barik garai onena eta oparoena salmentetarako. Batetik, barietate eta produkzio handia dagoelako. Gu biak garenez, okindegia eta gozotegia, egunero dauzkagu bezeroak, batzuk egunero eta beste batzuk asteburuetan datozenak bakarrik. Hilabeteen artean flojoena berri, otsaila izan daiteke. •



[arg.: karlos fidz. de betoño]

cd-a

hondartzan

makala | 2005/urria | www.musikametak.com

mikel unzurrunzaga schmitzek "makala" ezizenez ezagunagoa, bere bigarren diskoa dakarkigu.

gau batez donostiara joan eta dantzarako musika zaintzen duen club baten bila bazaude etxekaltera joateko esango dizu batek baino gehiagok. litekeena

da bertan musika jartzen topatuko duzun tipo handia makala izatea. aldiz, zurea egun argiko planak badira eta zarautza bazoaz, itsasoa ikusteko aitzakia, akaso taula baten gainean olatuekin borrokan oreka mantentzeko saioan topatuko duzuna izango da. beraz, surfa, musika eta dantza aipatu ditugu, denak bat egiten ditu mikel unzurrunzaga schmitzek, makalak alegia. bat egin, funk, dub, reggae, hip hop eta elektronika. bildu eta jantzi, maiz abestiak erritmo ezberdinekin jantzi bainoago, zailena erritmo ezberdinak abestiek jantzea izaten baita. hori da, dj, musikari, surflari zarautzarrak lortzen duena bere bigarren lan honekin. gerturatzen ari zaigun neguan ezinbesteko egingo zaigun eguzkia dakarren

diskoa da honakoa, kontrakoa badirudi ere hotza hondartzarekin girotu baitaiteke. hori da behintzat makalak dakarrena; negurako surfa. hamaika kolaborazio, remix eta sesioen ostean discjockey, baxujole, abeslari eta promotorea den zarautzar honek dantza dakarkigu lan berri honek gordetzen duen reggae, drum'n'bass, latin eta funk erritmoen nahasketarekin...



LITERATURA

HERIOTZA HAUR LITERATURAN (ETA II)

[txabi arnal gil]

Baina badago, halaber, heriotzaren gaia jorrazteko beste era bat, Disney-k *Hermano Oso* edota *Bambi* filmetan garatutakoa, hain zuzen. Pelikula hauetan animalia batek lagun maite baten galera pairatzen du.



Baliabide honen bitartez egoera latz hori umearengandik aldentzen da, zoritxarreko protagonista ez baita bera bezalako ume bat. Gaur egungo zenbait ipuinetan, heriotza azaltzeko momentuan, errekurtsio honetaz baliatzen dira egileak. Hauen artean, aipagarriena agian, Elisa Ramon-en eta Rosa Osuna-ren *Ez da Erraza, Katagorri* (Kalandraka, 2004). Ipuin bikain honetan, katagorri txiki batek amaren galera jasan behar du. Hitzek, oso era samurrean idatzita, katagorri txikiak bizi behar dituen gogoaldarte guztiak azaltzen dituzte: amarekiko haserre (alde egin duelako), amorrazioa, inoren laguntza nahi ez izatea, aitaren tristezia, aitaren etsipen, aitaren pazientzia, tristezia sakonena, tristezia bera, bakardadea, galeraren onarpena, adiskideen laguntzaren onarpena, aitaren eginkizun berria eta berrindartzearen lehendabiziko izpiak.

Irudiek, berriz, bikain laguntzen eta osatzen dute hitza. Egunen, arratsaldean, ilunabarren, gauen eta egunsentien koloreek katagorri txikiaren sentimenduak argiago ulertarazten dituzte. Gainera, hitzak berak zabaltzen ez duen informazioa agerian uzten dute irudi ederrok. Detale txikiak ere garrantzi handikoa da.

Eta orain itzul gaitezen hasierako galderara: hitz egin behar al zaie umeei heriotzaren gainean? Erantzuna bilatzen eta aurkitzen dugun bitartean irakur dezagun eta hunki gaitezen *Ez da Erraza Katagorri* liburua-ekin.

cd-a

zebra

anari | 2005/azaroa | www.musikametak.com

azkenean hemen dago zebra. luze itxaron dugun anariren lan berria. 5 urte igaro dira 'habetak' (esan ozenki records-2000) izeneko lana oparitu zigunetik, entzulego zein kritikaren laudorioak jaso zituen diskoa. anariren inoizko kantaerarik argitsuena aurkituko duzue zebra diskoan. kantuen azpian, rock elkarriketa intenporal batean ari dira gitarak eta pianoa (beruna urtu arte). kantuen gainean, hegala atera zaizkion kantaera argitsu dago. anarik egiten duen guztia bezalaxe, hirugarren disko hau ere oso pertsonala delako. eta bestela nahasirik ageri zaizkigu hainbat doinu eta hitz zebra berritzaile honetan. anarik berak heldu dio pianoari (eta gitara akustikoari). borja (inoren ero ni) egon da gitara elektrikoan, berebiziko nortasuna ekarri. drake eta mikel (bap-inoren ero ni) erritmo-erroetan ibili dira ohi bezala. xabi erkizia, jabi amodio, rober! rhumba... baita audience taldeko kide gaizka eta hanot ere, kantu batzuei "noir" ukitu eman.



beruna urtu egin zaigu zebra disko honetan. ezer ez da sortzen, ezta desagertzen ere. elementuak aldatu besterik ez dira egiten. zebra naiz oraindik. lehen zuria marra beltzez. orain, berriz, beltza marra zuriz (zebra). ura garelako gara naufragoak (naufragoak). erortzen bagara ere, amets berriei helduz gorantz erortzen gara (aingura hegodunak). ezin zaitudanez ahaztu, beharko zaitut nahastu (zebra). argitasuna helmuga, ilunetik ere gauza ederrak etortzen ahal direlako. harri bat bota dut lurrera eta txori bat altxatu da hegan (txori beltzak).

liburua

euskara batua - ezina ekinez egina

egilea: koldo zuazo | elkar argitaletxea | 19,95 €

Sakabanaturik zegoen euskara batu egin beharko litzatekeela, hizkuntza idatzia lantzen hasi bezain laster jabetu ziren euskaldunak, XVI. mendetik aurrera. Horren premia bezain gordin zen, ordea, egitekoaren zaila: bi estatutan banaturik, eskola, administrazio eta gainerako aginteguneetatik bazterturik, eredu bat sortzeko lurralde, erakunde nahiz idazle talderik gabe, nor bere txokoari eta ohiturei loturik...

Koldo Zuazok ezinezko bezain beharrezkoa zen helburu horren gorabeherak azaldu dizkigu, mendez mende. Dena den, liburu hau ez da mugatzen historia azaltzera ordea: egungo egoeran euskarak dituen ahuluneak seinatzen ditu, joera txar batzuk salatzen eta egilearen ustez etorkizunean hartu beharreko bidea erakusten. Hizkuntzaren nondik norakoa hobeto ezagutu nahi duenarentzat informazio iturri aberatsa izango da obra hau, eta haren geroaz kezkatutik dagoenarentzat hausnarketa gai oparo eta kitzikagarria.



[erredakzioa]

■ iberieraz bueltaka

nafarroan, antzinako andelo hiriguneko etxe printzipal baten zoruan nonbait, idazkera iberikoz sinaturiko mosaiko eder bat aurkitu zuten 1993an. eta duela bi urte, adituek aramaion egindako bileran, javier velaza irakasleak mosaikoaren barreneko testu hori euskararen bidez besterik ezin interpreta daitekeela esan zuen. hona hemen karaktere iberikoz idatzitako testua egungo letretara aldatuta: "likine abuloraune ekien bilbiliars"

www.erabili.com

■ gazteak euskararekin konprometituta

euskarak gazteen artean nahi bezain osasun onik ez duela jabetuta, gazte mugimenduko 28 eragilek gazte hitzarmena sinatu dute, euskara berreskuratzeko lanean konpromiso zehatzak hartuz. autokritika aldarrikatzen dute gazteek, beraiek beraien eremuan euskararen erabilera sustatzeko gehiago egin dezaketela eta egin behar dutela sinestuta.

www.erabili.com

■ azti-begia elkarteak urtarrean abiatu nahi du irratia

datorren hilabetean abiatuko da azti-begia elkarteak bultzatutako irratia nazionala. azti-begiak jakitera eman duenez, urruñako (lapurdi) estudioak bukatzeaz daude eta aurki erabiltzeko moduan egongo dira. dagoeneko eman dituzte irratia seinalea zabaldu ahal izateko pausoak, eta kazetarien taldea osatzen ari dira. irratia egitasmoak ez du erdietsi aurreikusi zuen bazkide kopurua, baina aurrera egitea erabaki du. beraz, bi bideak batera egitea erabaki dute: irratia abian jartzea eta bazkideak biltzen jarraitzea. www.aztibegia.net

aztibegia
ELKARTEA



■ ernestina champourcin, lehen aldiz euskaraz

ernestina champourcin poeta gasteiztarraren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko haren antologia elebiduna plazaratu du arabako foru aldundiak. rosa fernandez urtasun eta maria elena anton irakasleak arduratu dira poemak aukeratzeaz, hitzaurrea idazteaz eta obraren azalpenaz. rikardo arregik, berriz, euskaratu du champourcinen lana. liburu hau argitaratu arte inoiz euskaraz argitaratu gabe zeuden poema horiek. ernestina champourcinek 70 urte eman zituen idazten. ondorioz, obra mardula utzi zien literatura adituei.



■ eleaniztasuna arriskuan teknologia berriekin

gaur egun munduan hitz egiten diren 6.000 hizkuntzetatik erdiak desagertzeko XXI. mendea bukatzerako, eta baliteke are hizkuntza gehiago eta azkarrago desagertzea, besteak beste interneten eraginez. horrelako datuak plazaratu ditu nazio batuen hezkuntza, zientzia eta kulturarako erakundeak, unesco-k, 'ezagutzaren gizarteetarentz' txostenean. teknologia berriek eleaniztasunarentzat dakartzatzen arriskuak nabariak dira txostenaren egileentzat, arautu gabeko hizkuntzentzat bereziki.

www.erabili.com

■ euskaltzaindiak 'orotariko euskal hiztegia'ren bilduma kaleratu du

euskaltzaindiak 'orotariko euskal hiztegia'ren bilduma kaleratu du. hiztegi horren lehen liburukia duela 18 urte argitaratu zen. hiztegi deskriptiboa eta historikoa den aldetik, garai, toki eta mota guztietako euskal ondarea biltzen du. menderik mende eta euskalkietan zehar euskaldunak nolako hizkuntzaz baliatu diren ahalik eta osokien eta zehatzen azaltzeko helburua du hiztegiak. akademiako iturrien arabera, 'orotariko euskal hiztegia'ren lehen zuzendaria koldo mitxelena izan zen. euskaltzaindiaren enkarguz abiatu zen lan hori, eta bera hil zenean, ibon sarasolak hartu zuen lekukoa.



■ martxoak 3ko sarraskia zinemara eramango dute

hogeita hamar urte beteko dira datorren urtean espainiako poliziak gasteizen bost langile erail eta beste ehunka zauritu zituenetik. 1976ko martxoaren 3ko gertaera lazarri horiek zinemara eramango ditu lluis danes zuzendari katalanak. filmaren ardatza lluis llach kantautorea izango da, triskantza haren biktimei abesti bat dedikatu zien musikaria. pelikula 2004ko abenduaren 31n hasi ziren grabatzen, llachen etxean bertan, eta azken orduko arazorik ez badago, datorren urtean estreinatuko dute. dokumental musikatuaren formatua izango du pelikula.



■ hego euskal herriak beste espetxe berri bat izango du

espainiako espetxe-erakundearen zuzendaritzak jakitera eman duenez, langraizko (araba) edo basaurikoa (bizkaia) ixteko espetxe berria egingo da hego euskal herrian. nolanahi ere, pspe-ren gobernuak ez du oraindik erabaki zentro berria araban edo bizkaian eraikiko duen. espainiako gobernuako ministroen kontseiluak presondegien azpiegiturei buruzko plangintza berria onartu berri du. plan hori 7 urtekoa da, 2006tik 2012ra bitarteko iraupena baitu.

Iratxe Irigoien, Gasteizko Blusa & Nesken elkarteko lehendakari berria

"Bazen garaia elkarteko lehendakaria

Urtetan gizonezkoen esparrutzat jo den blusen arloan emakumeek poliki-poliki sartzea lortu dute. Are gehiago, aurten emakume bat bilakatu da Blusa eta Nesken elkarteko lehendakari. Bere izena, Iratxe Irigoien, 27 urteko gasteiztarra eta Txolintxo taldeko kidea. Berarekin solas egin dugu bere lehenengo usteak ezagutzeko.

[arg.: karlos fdz de betoño]



FITXA PERTSONALA

ADINA: 27

JAIO TERRIA: GASTEIZ

LANBIDEA: HAUR HEZKUNTZAKO HEZITZAILEA

KOADRILA: TXOLINTXO

NOIZTIK: ORAIN DELA 4 URTE

ZALETASUNAK: LAGUNEKIN IRTETZEA, INTERNET
IBILTZEA ETA BERE LANBIDEA

[saioa fdz de arangiz]

Nola heldu zara Blusen eta Nesken elkarteko lehendakaria izatera?

Lehendakari ohiak dimisioa eskatu zuenean, batzorde berria aukeratu zuen. Egia esan, ni zozketa baten bidez hautatu ninduten eta ez zen bestelako hauturik aurkeztu. Beraz, azkenean ni izan nintzen aukeratua!

Zer ekarri du aurten urtetan gizonezkoentzat jo den esparruan lehendabiziz emakume bat lehendakari bilakatu izanak?

Aurrerapauso bat izan da, egia esan. Halarik ere, urrats normala izan dela esango nuke, kontuan hartzen badugu lehendakaritzara aurkeztu zen batzordean 6 pertsonatatik 4 emakume ginela. Orain arte ez dira batzordean emakumeak egon eta bazen garaia!

Zein da neskek egun koadriletan jokatzan duten papera?

Nire aburuz, mutilek jokatzan duten paper bera. Horrela ikusten dut behintzat nik nire koadrilan. Orain arte, orokorrean esanda, koadriletan zeuden neskak blusen neskalagunak edo txistulariak izaten ziren, izan ere, azken urteetan hori aldatu dela esango nuke.

Hainbeste gizonen artean, norbait agertu al da zure aukeraketaren aurka?

Mementoz ez. Niri behintzat ez dit inork ezer esan eta bozketaren egunean denok egon ziren ados, boto guztiak aldekoak izan baitziren. Guztira, 1.500 blusa eta neska gara eta iritzi desberdinak egotea normala da, baina orokorrean arazorik ez dagoela uste dut. Dena den, baliteke jaietan horren inguruko iritzi gehiago entzutea.

Elkartean hasi berri den garai honetan aldaketarik egongo al da ala dagoen moduan mantenduko duzue?

Printzipioz, gure aurtengo helburua karguan sendotzea izango litzateke. Datorren urterako mementoz ez dugu ideia berririk pentsatu, izan ere, gauza hoiek bat-batean agertzen direnak izaten baitira. Dena den, badauzkagu gauza batzuk buruan, baina oraindik ideia hutsak dira.

Iaz Blusa eta Nesken egunean zezenketa tradizionala antolatzeaz gain, pilota partida ere prestatu zenuten. Aurten ere gauzatuko al da ekintza alternatibo hori?

Bai, hala da. Iaz oso ondo irten zen dena eta aurten errepikatzea erabaki

emakumea izateko"



dugu. Horrek ez du esan nahi zezenketa alde batera utziko dugunik, eta ekintza hau antolatzen ere lagunduko dugu. Izan ere, pilota partidua oso alternatiba ona da eta aurten egingo dugu berriro ere.

Gasteizko Blusa eta Nesken elkarteak Euskal Herri mailako 'Jai eta herri kulturen aldeko manifestua' sinatu du. Zertan datza manifestu hori?

Orain dela bi urte sinatu genuen manifestuak dioena zera da, Euskal Herrian, eta higadurak higadura, jaiaren zentzua bizirik dagoela eta agerikoa dela

herritarrek jaiari erakusten dioten atxikimendua. Egun, oraindik, herri honetako kulturaren oinarrian dauden atabismo zabaleko ospakizunek bere horretan dirautela gaineratzen du manifestuak. Hau da, Inauterietatik Sanferminetara, Aste Nagusian zehar edo Andre Maria Zuriaren festetan jaia osasuntsu dabilela. Horrez gain, honen bidez herritarrei dei egiten die jaiaren antolakuntza, kudeaketa eta jolasean parte hartzeko. Horretarako, noizean behin kontzertuak edo jai eta herri kulturen aldeko ekintzak antolatzen dira Euskal Herritik zehar.●

GASTEIZKO BLUSA ETA NESKEN ELKARTEA

Orain dela 50 urte inguru eratu zen. Bertan, Santiago Egunean (Blusaren Eguna) eta Andre Maria Zuriaren jaietan parte hartzen duten 23 koadrilek esku hartzen dute eta festa egun horietan egin beharreko ekintza eta erabaki guztiez arduratzen dira. Besteak beste, koadrila guztiak mistoak izan behar zirela erabaki zuten orain dela 9 urte.

Elkartea, beraz, 23 pertsonak osatzen dute, koadrila bakoitzeko bana, eta lau urtero hauteskundeak ospatzen dituzte elkarteo batzordea aukeratzeko xedear. Aurten, batzorde berria sortu dute. Orain arte, "Tazo" izan da lehendakaria eta bera izan zen 20 eta 33 urte bitarteko 6 pertsonaz (bi gizon eta lau emakume) osatutako batzordea proposatu zuena. Hauen artean, Txolintxo taldeko Iratxe Irigoien, lehendakaria; Desiguales taldeko Aritz Martin eta Galtxagorri taldeko Ibabe Lopez de Sosoaga batzordekideak; Txirrita taldeko Nekane Miguel, lehendakariordea; Los Martinikos taldeko Luis Ruiz de Galarreta, diruzaina; eta azkenik, Nekazariak taldeko Isabel Buesa, idazkaria.

Elkarteko koadrilak egun: Los Alegrios, Los Baines, Basatiak, Batasuna, Belakiak, Bereziak, Los Biznietos de Celedón, Los Desiguales, Galtzagorri, Gasteiztarrak, Hegotarrak, Jatorrak, Karraxi, Luken, Los Martinikos, Nekazariak, Okerrak, Petralak, Txinpartak, Txirrita, Txolintxo, Zintzarri eta Zoroak.



bitxiak / zilarra / osagarriak

*Olentzerorako bilatzen ari zinena, bertan!
Opari merke eta originalak!*

serafin ajuria 13-behea | gasteiz 01008 | 945222130



Varanasiko istorioak 6.-Lehorte

[jon arretxe]

Norbekeria erabat baztertu beharreko ezaugarria dela aipatzen du askotan Ganga maisuak jogako eskolen amaierako elkarriketan. Zergatik bota nahi dute bera hainbat urtetan zaindu duen tenplu magikotik? Jabeen berekoikeriagatik dirutza ateratzeko salmentaren truke, orubea erosiko duen gasolindegiko multinazionalaren grinagatik are aberatsago izateko... Zergatik dago, orokorrean hitz eginez, mundua dagoen bezala? Gizakion gurekoikeria da arrazoi nagusietakoa da, nagusia ez bada. Gaur, hain gustuko dituen ipuin horietariko bat kontatu dit Gangak, ikasgaia hobeto ulertarazteko:

Behin lehorte itzela egon zen Indiako lurralde baten, eta ondorioz gosete handia ere bai. Bertako erregeak aholkua eskatu zien gorteko astrologoei, eta beraien erantzuna hauxe izan zen:

-Hustu ezazu jauregiko putzu nagusia, erresumako biztanleei ontzikada esne bana ekartzeko eskatu eta berorrekin bete dadila putzua egunean zehar. Horrela jokatuz gero, euria ekarriko du eta lurra fruituak ematen hasiko da oster a ere.

Erregeak agindua zabaldu zuen bere lurraldean, eta bertako biztanle guztiak prestatu ziren bidaiarako.

Besteak beste, umerik gabeko bikote oso zekena bizi zen erresuman eta, aginduaren berri izatean, alferrikako gasturik ez izatearren, zera pentsatu zuten: "oso-oso goiz bagoaz erregeren jauregira, guztiz argitu aurretik, esnea barik ura bota dezakegu putzura. Azken baten, nor konturatuko da, gero gainerako guztien esnearekin nahastuko bada?"

Pentsatu eta egin, lehenengoak izan baitziren jauregira heltzen zehaztutako egunean.

Jarraian erresumako biztanle guztiak iritsi ziren banan-banan, oso goiz gehie-

nak, erregearen agindua bazter uztearen beldurrez. Arazoa da denek izan zutela bikote zekenaren ideia berbera, eta ura eramane zutela jauregira. Denek batek izan ezik: erresumaren azken muturrean bizi zen agure zintzo batek. Bera izan zen, bai, ura barik esnea hartu zuen bakarra.

Baina hain bidaia luzea izanik, gizon zaharra berandu ailegatu zen, ontzia eskuan, jauregiko ateetara, eguzkia ezkutatzen ari zela. Ordurako erregea sutan zegoen, bere herriaren zekenkeriaren kontura guztiz haserre. Zer egin behar ote zuen? Amore eman? Hainbat herritarren buruak ebakiz mendekatu?

Bien bitartean, jauregira heldu berritako agureak baimena eskatu zien zaindariari bertan sartu eta esnea putzuan isurtzeko. Berauen erantzuna, oster a, handik ostikoka botatzea izan zen.

Agure zintzoa sarrerako eskaileretatik behera jausi zen. Eskuetan zeraman ontziko esnea lurrean isuri zen, eta une hartan, luzaro iraungo zuen euri zaparrada botatzen hasi zen.



ERREZETA

TXIPIROIAK PLANTXAN TALLARIN ETA ALGEKIN

[BRESAZ, OLIBA OLIOZ ETA TXIPIROI TINTAZ LAGUNDUTA]

[diocesan-mendizorrotzako ostaralitza eskola]

> 4 pertsonentzako osagaiak:

Txipiroiak 20 u.
Itsasoko algak (lekak) 50 g.

Oliba olio birjina
Gatz lodia eta piperbeltza

Marinatua:

Oliba olio
Limoi zukua
Perrexila eta baratxuri txikituak

Pasta freskoa:

Irin arrunta eta sendoa 100 g.
Arrautza gorringoak 1 u.
Arrautza osoa (60 g.) 1 u.

Oliba olio txipiروي tintarekin
Gatz lodia

Bresa:

Brunoise tipula 100 g.
Pipermorra 50 g.
Piper berdea 50 g.
Tomate zuritua haziarekin 100 g.

Xehetasuna:

Tipulina, oreganoa eta perrexila
Oliba olio txipiروي tintarekin

Prestakuntza:

Txipiroiak garbitu, xukatu, marinatua gehitu eta ordu batzuk utzi.

Algak uretan sartu tarte batez, ura xurgatu arte, xukatu, txiki-txiki zatitu eta ur gatzatuan puntu-puntuan egosi; gero xukatu, hoztu eta gorde.

Bresa:

Ontzi batean olio apur bat bota eta tipula eta piperrak gorritu, gatz bota, eta gero tomate gehitu, segundo batzuez su ez tigan egin eta bero mantendu.

Pasta freskoa:

Osagai guztiak batu eta oreka egin arte eragin; bola bat egin, film paperean bildu eta hozkailuan hozten utzi. Oreaken erdia hartu (gainerakoa gorde), 1'5 mm-ko lodiera izan arte luzatu, 4 mm-ko zabalerako zerrenda finetan moztu, puntu-puntuan egosi gatz eta olio apurtxo bat duen uretan, hozten utzi, xukatu eta gorde.

Azken txanpa:

Txipiroiak marinatutik atera, xukatu, gatz eta piperbeltza bota, bi aldetatik gorritu (hankak aparte), gero marinatua bota eta beste apur batez gorritu.

Tallarinak eta algak oliba oliotan gorritu ontzi batean, gatz puntua eman eta txikitutako belar pixka bat bota. Plateretan luzetara jarri eta txipiroiak ondoan ipini; beste aldean bresa zerrenda fina jarri, gainerako belarrak gehitu eta, amaitzeko, txipiروي tintarekin bustitako oliba olioarekin zerrendatxo batzuk egin.



[alfredo ibarra]



ARRIETA (TREBIÑO)

MAITE BASTERRARENDAKO OHARTTOA (AMETZAGA - ZUIA):

Kaixo, potxola! Lehenik eta, esker mila zure e-mailarengatik. Kontxo, kontxo, egia da mundua tipia dela, baita Euskal Herria tipiagoa dela ere. Trinkoagoo, baina, mundua baino, gure eran sakonagoa, badakizu.

Izan ere, horrenbortze "Aldaieta" goitibeheiti eta, zuk errana, bizi zaren arbasoen baserri izena ere "Aldaieta" dugu. Ez dakit, nolatan jakin ere, zure aitaixiren baserriak eta hondar bolada honetan aipatzen aritu garen "Aldaieta" tokiak harremanik ote duten. Biak Araban dira, eta ez sobera urrun, hori egia da, baina agiri zaharrak aztertu beharko genituzke, loturak...

Dena den, eta ni ere kurioa naizenez, hor dugu antzeko "Aldai" Uda-Trebiñuko Arrietan, "Aldai" ibiribila" Igorain alderdian, "Aldai" korreka" Laudion, "Aldai" nurruti" Azkoagan, "Aldai" turri" Eturan edota "Aldai" turriaga" Amurrian. Baina, ageri duzunez, zure baserri izenak bat egiten du bete-betean. Ai ene, agian balizko harremana uste baino estuagoa balitz?

Nork daki... Zu Basterra zara eta Nafarroa Garaian ere abizen berberaz jantzi-iriko lagun bat baino gehiago ezagutzen dut. Gure Euskal Herria honelakoa baita, ez zazpi, ez sei, Bat! Erran bezala, esker mila, eta ez pentsa, luzaturiko gonbidapenez ez baikara erraz ahantziren...

ALDAIETA (ETA IV)

[erlantz urtasun]

Kaixo, irakurle. Aurrekoan errana, oraingoan bete: gai honi amaiera eman diezaiogun, Aldaietako hilerrian lurperaturiko hildakoen erritualei buruz arituko gara, hain zuzen ere VI-VIII. mendeetako arabarren erlijio ohiturez.

Azalpena, betiere, ez dagokigu guri, indusketa, hau da, "eskabazioa" maisuki zuzendu zuen Agustin Azkarate Garai-Olaun arkeologoari eskertu behar, zinez.

Laburbilduz, kausituriko aztarnen artean agerian geratu den erritual bat nabarmentzen zaigu, halaberharrez. Alta, gorpuak alde batean utzi eta, berantago, hezurrak lurperatzen ohi zituzten. Kasu, halere, ez baitzuten edozein modutan egiten, bai zera, aipatu dugun erritual baten arabera baizik.

Ez dakit beti, baina bai zenbaitetan, eta hau ezin adierazgarriagoa zaigu, jakina, hezurrak tokiz kanpo azaldu dira. Uf, ez, ez da gai "morbosoa", barkadazue, gertatzen dena da hobe dugula

poliki-poliki, ia ahopeka kondatzea bertan zena: besoaren tokian izan beharreko hezur bat, hankaren tokian agertu, eta alderantziz. Arnasa hartu honaino iritsi bazara: burua, oinetan. Eta ahoaren aitzinean, aurrean, beirazko ontzi fin ederra, janariarekin zena.

Bistan denez, erritual horiek ez ziren batere kristauak, eta hildako horiek Gasteiztik hamar bat kilometrorat ziren. Paganismo bizi bizia kristo ondorengo zazpigarren mendean eta Araba erdian. Ohiko topikoak, hankaz gora. Horregatik, apika, propaganda guti izan du. Eta mass-media nagusienetan, digitaletan aipatzen ez dena esistitu ere ez denez...

Zer egin nahi zuten, haatik, erritual hori burutzen zutenek? Zertarako egiten zuten? Bizkaian ageriko suaren inguruko erritualekin loturarik ote? Iruñerrian diren garai bereko hilerriekin alderaketarik? Gauza bera egungo Araba osoan? Erantzunik gabeko galdera franko, beharbada egunen batean ulertuko duguna. Bertze on Joxemiel Barandiaran jaioko?



[? txoko honetan, erlantz urtasun historiagileari euskal herriaren historiaren inguruko galderak zuzenean egiteko aukera duzue. bidali hona zure galdera: geugaste@grn.es]

> gasteizko irakurle kluba 2005/06

>> abenduaren 22a, osteguna

Miren Agur Meabe, Azalaren kodea, Susa 2000

dinamizatzailea: iban zaldia
lekua: hikaateneoa (pintore kalea, 13)
ordua: 20:00

>> urtarrean mintzagai izango den liburua:
C. K. Chesterton, Ostegun izan zen gizona, Ibaizabal 1997 (1908).



'Azalaren kodea'
Miren Agur Meabe
2000, poesia



GASTEIZKO
IRAKURLE
KLUBA

MEMORIA EZ GALTZEKO OHARRAK-5

Zurekin egin nuen amets
eta ibai epel batek kilimak egin zizkion etxeari.

Mamu-lana zenuen,
nire aurpegi gainera arnasa hartzera etorrita:
lotan soilik ikus zintzakedan.
Ametsetan egin nuen zurekin
eta emakume biluziak zenezkan inguruan,
makurtu eta altxatzen
eta muin egiten
bizkarrean, sexuan, eskuetan, besapeetan.
Irribarreka zeunden zu, denak maite baitzenituen.

Hain aspaldian ez dute gure begiek elkar ukitu
ezen nitaz oroituta, ametsetara baitzatokit,
eta orduan
irristaka galduz doan harea bilakatzen natzazu
loaren beroan.

© Miren Agur Meabe

> kultur errota

>> abenduak 27, asteartea
hitzadia>> IÑAKI BARONA:
'Vasco-navarro trenbidea'

gasteizko parral tabernan, 20.30ean

> kangeuroak

ikasturtearen hasierarekin
batera, zerrenda berritzeari ekin
diogu. kangeuro gisa aritu nahi
baduzu emaguzu zure izena eta
telefonoa, eta zehaztu zure
ordutegia: 945222153 /
geugaste@grn.es

aldi berean, zerrendan agertu
nahi ez baduzu, abisua eman.
ostiral, larunbat eta igandeetan
Berrbizne Urzelai
652711705

> GASTEIZKO EUSKARAREN AGENDAREN BERRIPAPERA HILERO JASO NAHI?

>>BIDALI GEUGASTE@GRN.ES
HELBIDERA ZURE MAILA,
"GASTEIZKO EUSKARAREN
AGENDA JASO NAHI DUT"
ADIERAZIZ.

> geu gasteiz mendi-taldea (geurekin mendira)

2005-2006 denboraldia

>> abenduaren 18an

Montemayor (1103 m), Escaños
goizko ibilaldia

arduraduna: Xabi 629487540

irteera guztiak: Lovaina plazatik /
goizko 9.00etan

montemayor mendia.

fitxa>

altuera: 1103 m

mendizerra: arkamu

igolekua: artatza,
axkoeta, jokano

gertuko
tontorrak:
marinda,
cantoblanco,
kruzeta,
arangatxa,
olvido, repico,
atalaya, oteros



euskararen agenda 2005eko azaroa											
17	17	18	18	18	19	20	20	21	21	22	23
19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31					

Bere 40. edizioan dator Durangoko Liburu eta Musika Azoka, Euskal Herriko kultura musikaren eta literarioaren ispilu preziatuena dena.

Durangoko Euskal Liburu eta Disko AZOKA

[josune v. de mendizabal]

Aurtengo egitarau oparoari Joan Mari Torrealdairen zentsurari buruzko hitzaldiak emango dio hasiera eta, ekintzarik ekintza, Gotzon Garate izango da aurtengo 'Argizaiola omen-saria' jasoko duena. Merezi du Durangotik bisita egitea "in situ" azokaren inguruan mugitzen den guztiaz jabetzeko. Gerturatzerik ez balego ordea, ekintza kultural erreferente hau antolatzen duen Gerediaga Elkartek prestaturiko web berria bisitatzea besterik ez dago, bertan azken orduko berri guztiak agertzen direla

> www.durangokoazoka.com

DURANGOKO AZOKAK GEREDIAGA ELKARTEAK BESTE URTE, 40

Durungaldearen ondarea eta kontzientzia komuna berreskuratzeko eta indartzeko asmoz sortu zen Gerediaga Elkartea 1965ean. Durango Merinaldeko Adiskideen Gerediaga Elkartea hartu zuen izena orain 40 urte eta harrezkero Durungaldeko Merinaldeko ondare historiko-artistiko-kulturean lanean dihardu. Ez da hau, hala ere, Gerediaga Elkartek antolatzen duen ekintza bakarra, baina bai ordea ezagunena eta Euskal Herriko kultura musikala eta literarioaren erakusleho handiena.

AZOKAREN HISTORIA

Durangoko lehenengo euskal liburu eta disko azoka 1965ean egin zen. Gerediaga Elkartea sortu

berriak antolatu zuen lehen ekitaldietako bat izan zen. Helburua, frankismoaren diktadurapeko urte haietan, Euskal Herrian zegoen liburugintza eta diskogintzaren ekoizpena ezagutzera ematea. Helburu nagusia hori bazen ere, euskalgintzan jardunean zebiltzan sektoreen topalekua izatea ere lortu nahi zuten Gerediaga Elkartekoek. Baita 40 urteren buruan lortu duela ere azpimarratzerik badago.

ARGIZAIOLA OMEN-SARIAK

Gerediaga elkarteak, 1992 urtean, beste garai batzuetan zenbait pertsona eta erakundek euskara eta euskal kulturaren alde egindako lana goraipatzeko 'Durangoko argizaiola omen-saria' ematen hasi zen, berba bitan esateko "gauean argia" izan zirenei eskerrak emateko. Aurtengoa Gotzon Garatek jasoko du. Bere aurretik omenduak izan diren hainbat izen badira ere: Txillardegia, Gerardo Bujanda, Nestor Basterretxea, Fernando Larruket, Benito Ansola, Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, Bernardo Estornes Lasa, Jon Bilbao, Labayru ikastegia, Klaus F.A. Niebel, Jose Maria Jimeno Jurio, Bittor Kapanaga, Antonio Zavala Etxebarria, Juan San Martin, Koldo Larrañaga eta Pio Baroja>>.



✓ helburua, frankismoaren diktadurapeko urte haietan, euskal herrian zegoen liburugintza eta diskogintzaren ekoizpena ezagutzera ematea

✓ beste garai batzuetan zenbait pertsona eta erakundek euskara eta euskal kulturaren alde egindako lana goraipatzeko 'durangoko argizaiola omen-saria' ematen hasi zen elkarteak 1992an

✓ azken orduko berri guztiez janzteko > www.durangokoazoka.com

FITXA

izena: durangoko euskal liburu eta disko azoka

aldia: 40. edizioa

non: durangoko landako erakustazoka

noiz: 2005eko abenduaren 7tik 11ra

ordutegia: 10.30-20.00

bultzatzailea: gerediaga elkarteak

sailak: editorialak, banatzaileak, diskoetxeak, erakundeak eta kultur eragileak

betebeharreko ezaugarria: euskarazko argitalpenak eta euskal gaiak

Durangoko azokako egitaraua > 5. orrialdean

mikel laboa xoriek 17

2005-azaroak 30

www.berria.info (azaroak 11)

Arriskuari leial

Inspirazio iturri izan dituen egileak omendu eta txorien mundu metaforikoan sakondu du Mikel Laboak 'Xoriek 17' diskoan, bere espiritu urratzaileak bizirik dirauela erakusten duen diskoan

[mikel lizaralde-donostia]

Mikel Laboak estudioan grabatutako beste disko bat kaleratuko duen urtea. Horrela gogoratuko dute 2005a kantariaren jarraitzaile askok. 14 diskoa grabatu zuenetik 11 urte igaro dira. Ordutik zuzenean grabatutako bi disko kaleratu ditu, eta orain dela bi urte, 60ko hamarkadara begira jarri eta garai hartako kantuak berreskuratu zituen 60+2 lanean. Baina estudioko lan berririk ez.

Lehorteari amaiera emango dion lanak Xoriek 17 izenburua izango du, eta hilaren 30ean



argitaratuko dute. Urte osoa eman du grabatzen Laboak bere ohiko kolaboratzaile Iñaki Salvador pianistarekin, Josetxo Silguero saxofoi jotzailearekin eta Jean Phocas grabaketa ingeniariarekin. Nolanahi ere, musikari ugariz inguratu da Laboa disko honetan, eta kantu askotan kolaborazioak izan ditu.

Xoriek 17 bidaia luzeko diskoa da. Hamalau abesti ditu, eta ia 78 minutu irauten du. Garai batean bezala biniloan aterako balitz, bikoitza izango litzateke halaberharrez. Baina kantitate aldetik ez ezik, eduki aldetik ere bidaia luzeko lana izango da. Laboarik heterodoxoena islatuko baitu, jendeak egozten dizkion eskemetara makurtzen ez den artista. Jazzarekin nahiz post-corearekin esperimenta dezakeena. Baina baita bere maisu izan zirenak omendu nahi dituen ikaslea ere.

Egiturari dagokionez, berriz, bihurria, konplexua eta logika bati lotua azaltzen da Xoriek 17;

musikariak: iñaki salvador, josetxo silguero, iosu izagirre, hasier oleaga, dani perez, eduardo baranzano, carlos itoiz, lisabö, mixel etxekopar, alasdair fraser, natalie haas, et incarnatus, ruper ordorika eta xabier montoia.

teknikaria: jean phocas | azala: zumeta | diskoetxea: elkar

Laboak hiru multzo handitan banatu baitu diskoa.

In memoriam atalean, bere lanaren inspirazio iturri izan diren artistak ekarri ditu gogora. Batzuk espirituarekin daude presente diskoan (James Joyce, Billie Holiday), eta beste batzuk, berriz, beren kantuen bitartez (Jacques Brel, Atahualpa Yupanqui, Jexux Artze).

Beste atal handi batek Xoriek izenburua du. Laboaren ibilbidean sarritan agertu izan direla eta, Bernardo Atxagak aipatu zion duela urte batzuk txoriei buruzko lan bat egiteko ideia. Eskaera hari erantzun eta bost kantu jaso ditu diskoan; horien artean Txoria txori-ren bertsio instrumentala.

Gainerako lau kantuek ez dute atal jakinik osatzen, baina badituzte elementu komunak. Pieza luzeak dira, eta Laboak bereziki maite dituen hiru idazleren testuak dituzte oinarrian (Atxaga, Joseba Sarrionandia eta Bertolt Brecht).

Abestiei buruzko zertzelada batzuk > www.berria.info (azaroak 11)

'urrezko giltza' liburu-diskoa & ekitaldia

egileak: -patxi zubizarreta (ardura literarioa) | -joserra senperena (ardura musikala) | -jokin mitxelena (ilustrazioak)
argitaletxea: erein | argitaratze-data: 2005/azaroa

liburu-diskoaren nondik norakoak

'Urrezko giltza' haurrentzako liburua da, baina, bi diskoren bidez, aukera ematen du ipuinak, alegiak, formulak eta kantuak entzuteko ere. Gainera, oso ikusgarria da, izan ere, marrazki ederrez apaindua baitago.

Askotan, gurasoek edo irakasleek ez dakite haurrari zer kantatu zabuetan bultzatzen egiten dioten bitartean, ez dakite zein formula erabili haurrak zauria egiten duenean, edo hortza erortzen zaionean. Hala bada, liburu honetan familia baten istorio dibertigarriak kontatzen dira, eta hor txertaturik agertuko zaizkigu tradizioetik hartutako ipuin, alegia eta kantuak, batzuk ezagunak, beste batzuk

guztiz berriak.

Haur txikientzako liburu handi bat da, kolorez apaindua (Jokin Mitxelena) eta Joserra Senperena piano jotzailearen ardura musikarekin. Eta, hauekin batera, ipuinak irakurtzen edo kantuan: Josune Lopez, Xabier Lopez, Martin Tejeria, Mari Karmen Odriozola, Piter Ansorena (Mirri), Maddi Oihenart, Joxe Arratibel, Olatz Zugasti eta Gasteizko Abendaño Ikastolako abesbatza Keila Guridiren zuzen-

daritzapean (Gorka Santos, Laura Bastida, Nagore Santesteban, Amaia Hernaltes, Erika Revuelta, Mikel Alonso, Jon Arranz, Naiara Gonzalez).

Guztira, 25 ipuin inguru, 25 kantu inguru, 25 formula tiki inguru, ikasgelan nahiz etxean tradizioa modu jostarin batean ezagutzeko eta tradizioarekin jolas egiteko. Liburu bikain bat eta bi disko eder, bizi-biziak eta ustekabez eta keinuz beteak, irakurtzeko, entzuteko edo kantatzeko.



Haurrentzako ekitaldia: abenduaren 3an > euskararen egunean

Gasteizko Europa Biltzar Tokian. 2 saiotan.

EKITALDIAREN NONDIK NORAKOAK

Ekitaldi honek 'Urrezko giltza' liburuaren magia jasoko du. Iban Garate aktore-aurkezleak zuzendua, honakoa biduko da ekitaldian: ipuinak pianoaren laguntzaz; kantuak gitarra, pianoa eta txistuaren laguntzaz; eta jolas formulak Gasteizko Abendaño Ikastolako abesbatzako haurren bidez. Aldi berean, Gasteizen bizi diren bi poeten lanak (Xabier Olaso, Euskadi Saridun berria eta Jon Suarez) irakurriko ditugu.

Haur txikientzako ekitaldia izaki, dena bizi-bizia izango da, entzule-ikusleen parte hartzea eskatuko da, eta, bizitasun hori areagotzeko, Jokin Mitxelenak eszenatokian bertan marrazkiak egingo ditu (ikusleek pantailan ikusiko dituzte).

1936ko Uztailaren 18ko estatu kolpea Gasteizen

[txema flores,
arabera kultur taldeko kidea]

Prestaketa guztien zuzendaritza Jose Luis Orioli zegokion, zein, diputatu eta Junta Karlistako lehendakaria izateaz gain, Alfontso Karlos Borbongoa erregegai karlistaren erregekomisaria ere baitzen. Erreketeen izen-emateari dagokionez, ardura Luis Rabanera, armadako komandanteari egokitu zitzaion.

Altxamendura zuzenduak zeuden karlisten prestaketak ez zuten indar militarrekin inolako loturarik. Lotura hau 1936ko ekainaren 4an eman zen, Jose Luis Oriol Molarekin elkartu zenean Azpirotzeko gainean, Lekunberritik gertu.

Bilera honen ondoren, Oriol Anberesera joan zen eta bertan fusilak, metrailadorak, granadak eta kartutxoak erosi zituen. Belgikatik itzuli zenean, harremanetan jarri zen Camilo Alonso Vega militarrekin, eta bien artean koordinatu zuten erreketeen parte-hartzea Arabako erreboltan.

Uztailaren 17an arabar sedizioegileek erreboltaren azken baieztapenaren bila ibili ziren, bidali zutelarik armadako kapitain bat Iruñera, nafar erreketek kolpea lagunduko zuela ziurtatzeko zereginarekin. Egun berorren gau aldean hasi ziren zabaltzen Afrikako eta Burgoseko altxamendu militarren zurrumurruak.

Gauzak honela, Uztailaren 18an Herri-Fronteko buruek eta EAJko zenbait kidek antolatu zuten Errepublikako Gobernuaren aldeko babes manifestazioa. Eguna aurrera zihoan eran, kezka gero eta nabariagoa zen, eta arratsaldean jendea Gasteizko Dato kalean bildu zen, erne egoteko eta Gobernu errepublikarra babesteko deiak jarraituz. Gobernadorearen jokaldi bakarra ohar bat emititzea izan zen Gobernuak jasoriko babesa eskertuz. Bitartean karlistak biltzen hasiak ziren tradizionalisten lokalean.

Egun osoan zehar, tropek koartelean

jarraitu zuten, eta milizianoz osatutako zainketa-taldeak jarri ziren beren mugimenduak kontrolatzeko.

Uztailaren 19ko egunsentian Goardia Zibilak atxilotu zituen Gasteizen Lizarrako Goarnizio militarreko Buruaren bi postari Camilo Alonso Vegarentzako mezu batekin, erreboltaren Gasteizko martxaren berri eskatuz, Lizarran jada martxan zegoelarik. Gobernadore Zibilaria eman zioten aurkitutako oharra, eta Gobernazio-ministroa informatu zuten. Honek Alonso Vega atxilotzeko agindua eman zuen.



Navarro Vivesek, gobernadore zibilak, Camilo Alonso Vega ez zela atxilotua izan eta militarrek, guardia zibilak eta oldar-guardiak fakzioekin zeudela jakin zuenean probintziako agintea telefonoz Komandante militarri eman zion eta Bilbon babestu zen militarrek luzatu zioten ibiltzeko baimenarekin. Ia berehala karlistek Gobernu Zibilararen egoitza okupatu zuten.

Gobernadore Zibila Bilbora ihesi zihoan bitartean, infanteriako destakamentu bat atera zen kalera eta Arabar Ermandadearen ibilgailu ezberdinak Araba kurrutzen hasi ziren erreketek jaso eta Gasteizen biltzeko.

Altxamendu militar eta faxistarekiko jendearen erreakzioari dagokionez, Arabar Ermandadearen egoitza erasotzeko saio bat izan zen, oldar-guardiak tiroka erreprimitu zuena, biktimarik gertatu ez zelarik.



Beste erreakzio bat, azkena, greba orokorrerako deialdia izan zen sozialisten, komunisten eta anarkisten aldetik uztailaren 20rako. Hartutako neurriek (horien artean nabarmendu zirelarik militarrei eta erreketei tiro egiteko aurretiko ohartarazpenik gabe emaniko ordena, sindikatuetakoa kideen atxilotzea, eta lanuzteari eutsiko zioten enplegatuen lanetik bidaltzea) eta zegoen nahasteak eragin zuten grebaren porrota, eta saio hau guztiz zapuztuta zegoen 23rako.

Hori horrela bazen ere, astelehenean, uztailak 20, langileek uko egin zioten beren lan-zentroetara joateari. Ez ziren egunkariak publikatu, ez zen esnerik eta ogirik izan. Araba prentsarik gabe geratzeko tenorean zegoenez, halakorik gerta ez zedin, asteartean bertan falangista talde bat arduratu zen Gasteizen Diario de Navarra banatzen.

Uztailaren 20an, Pedro Rodriguez Llamasek hartu zuen Gobernu Zibilararen ardura, bi egun beranduago German Gil Yuste jeneralak ordezkaturako bazuen ere. Pedro Rafael Santaolalla, lehenago Gasteizko Udalaren alkatetzarako hautagai eskuindarra izandakoa eta Arabar Federazio Patronalaren sortzailea, jabetu zen azkenean alkatetzaz, eta Candido Fernandez Itxaso koronela Diputazioaren lehendakaritza.

Egun berorretako goizeko hamarretan, oldar-guardia talde batek Euzko Gaztedi, ELA, Sociedades Obreras (UGT) eta CNTren lokalak arakatu eta itxi zituzten. Hurrengo egunean martxa bera nozitu zuen Zentro Errepublikarrak, non oraindik bildurik geratzen baitziren Herri-Fronteko zenbait kide. •



EYSKAL LABELA LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Confecciones Pinedo JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90



ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ



ITYRRIETA

Sagardotegia

OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHA
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIAKETOAK ETA
MERIENDAK

Arraga auzoa.
Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Euskadik behar zaitu



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

[garoñaren aurkako koordinakundea]

ITXI DEZAGUN GAROÑA

[2005eko GAROÑAREN AURKAKO MARTXAREN MANIFESTUA]

Aurten ere zentral nuklear honen aurrera joan behar izan dugu, beronen itxiera eskatzera. Beste urtebetez zentral nuklear zaharkitu honek gizartea mehatxatzen jarraitu du, ingurumenara erradioaktibitatea isuriz eta hondakin erradioaktiboak sortuz.

Garbi utzi nahi dugu zentral nuklearrak ez daudela argindarraren hornidura beharrei erantzuteko, zarrastelkeria, kontsumitzaileen ezagutza eza eta enpresa gutxi batzuen boterea eta irabazia sustatzen dituen eredu energetiko bati erantzuteko baizik. Ekologistak

Martxan taldeak garbi utzi du bere txostenetan argindarraren % 35 aurreztu eta, aldi berean, argindarraren % 19 ekoiztu daitekeela energia garbien bidez, hau da, haize-energiaren bidez; honek guztiak gaur egun argindarra aurrezteko eta energia berriztagarriak ezartzeko baliabideak badaudela egiaztatzen du. Politikoen nagikeria eta borondate eza edota gaur egungo eredu jasanezinari esker irabazi handiak izaten dituzten enpresa elektrikoek erresistentzia dira aldaketari aurre ez egitearen arrazoiak.

Jose Montilla industriako ministroak udan egin zituen adierazpenetan, energia nuklearrari uko egitea burugabekeria zela esan zuen. Garoñaren Aurkako Koordinakundetik honako hau adierazi nahi diogu: prestazio bereko beste batzuekin alderatuta kontsumoa bikoizten duten tresna elektrikoak saltzea da burugabekeria; elektrizitatearekin egiten den zarrastelkeria sustatzea eta indartzea da burugabekeria; elektrizitate gehien kontsumitzen dutenei zigorra ezarri ordez prezioak jaistea da burugabekeria; kontsumitzaileei energiaren jatorriaren eta berorren ekoizpenak sortzen duen inpaktuaren berri eman gabe, arduragabekeria sustatzea da burugabekeria; eta azkenik, energia ekoizteko metodo batek sortzen dituen hondakin arriskutsuen arazoari irtenbidea aurkitu gabe metodo horren aldeko apustua egitea da burugabekeria. Montilla ministroa: gaur egungo egoera eta zure ardurapeko eredu energetikoa dira benetako burugabekeriak.

Biztanleei gogorarazi nahi diegu Garoñako zentral nuklearra epe baterako eraiki zela eta gaur egun bere bizi zikloa amaituta duela; beraz, zentral nuklearraren jabeek eta defendatzaileek berau behin betiko geldiaraztea onartu behar dute. Lanean jardun duen hamarkada hauetan inguruko herriak mehatxatu ditu, iraunkorrakoak ziren inbertsioak uxatu ditu, inguruko jabetzak debaluatu ditu, bertako nekazaritza produktuen salmenta zaildu du, eta bertako hondakin arriskutsuekin inguruaren etorkizuna hipotekatu du. Garoña zahartuta eta pipiak janda dago. Oxidoak oinarritzko osagaiak ahuldu ditu, oxido

hori zahartuta dagoelako, diseinu txarra duelako eta erreaktorea jasandako presioagatik egoera txarrean dagoelako. Bitartean, Nuclenor enpresak ez du onartu nahi Garoña hiltorian dagoenik, eta partxe eta tirta bidezko politikarekin jarraitzen du. Noiz arte onartuko du Segurtasun Nuklearrerako Kontseiluak ausarkeria hori?

Aurrezkian eta energia berriztagarrietan oinarritutako beste eredu energetiko bat defendatzen dugu. Gaur egungo eredu energetikoa hobetzeko edozein planteamendu arrazionalak berehala energia aurreztu beharra du oinarri. Energia aurreztearekin batera, erregai fosiletan eta nuklearran oinarritutako energia iturriak baztertu eta energia garbiak erabili behar dira, doakoak eta agortezinak, hau da: energia berriztagarriak. Gizarteak energia ekoizteko metodoak aukera ditzakeen eredu energetikoa behar du, zentralizazio txikiagoa izango duen energia ekoiztuko duena eta kontsumo lekuetatik gertuago egongo dena, gaur egungo diktadura energetikoa alde batera utzita.

Behin eta berriz adierazi nahi dugu ondorengo belaunaldien beharrak hipotekatu gabe gaur egungo beharrei erantzungo dien eredu energetiko batek inoiz ez duela energia nuklearra barne hartuko. Energia nuklearra ez da berriztagarria, erregai arriskutsua, uranioa, behar baitu; energia nuklearra ez da segurua, sarri erradioaktibitate ihesak izaten baititu eta istripu nuklearrak gertatzeko arriskua baitago; eta energia nuklearra ez da garbia, ondorengo belaunaldiek milaka urtetan jasan beharko dituzten hondakin arriskutsuak, erradioaktibitatea dutenak, sortzen baititu. Beraz, energia nuklearra ez da aldaketa klimatologikoen irtenbidea, ez eta elektrizitatea sortzeko metodo egokia ere.

Azkenik, Zapatero presidenteari hauteskundeetan eman zuen hitza bete dezala eskatzen diogu, energia nuklearra baztertuko zuela adierazi baitzuen. Guadalajarako Jose Cabrera zentral nuklearra, Zorita izenez ezagutzen dena, sei hilabete barru behin betiko itxiko da. Garoñako Santa Maria zentral nuklearrak baditu nahiko arrazoi itxiera zerrendan hurrengo izateko: elektrizitatearen % 1,5 besterik ez du ematen, beren jabeek ongi amortizatuta dute, korrosio arazo larriak ditu, segurtasunerako oinarritzkoak diren zatiak pitzatuta ditu, eta zentral nuklearran zaharrena eta arriskutsuena da. Naturarekin bakean bizi den gizarte bat nahi dugunontzat lehendabiziko helburu bilakatu da Garoña. Zentral nuklear zahar horrek martxan jarraitzen duen bitartean denborak gure aurka egiten duela jabetzen garenez, berriro ere hauxe eskatzen dugu: Garoña itxi orain!



Nuclenor enpresak ez du onartu nahi Garoña hiltorian dagoenik, eta partxe eta tirta bidezko politikarekin jarraitzen du.



**Poltsikoratu
deskontu guztiak!
iLlena tu bolsillo
de ventajas!**

elkar



Orain, **elkar txartel** berriarekin:

- %5eko deskontua liburuetan
- %10eko deskontua euskarazko musikan
- Erosketa bakoitzarekin puntuak zureganatzeko aukera
- Ikusentzunezko eta jokoetan promozioak
- eta askoz gehiago...

Zatoz eta **doan** atera.

Ahora, con la **nueva elkar txartela**:

- 5% de descuento en libros
- 10% de descuento en música en euskera
- Acumulación de puntos con cada compra realizada
- Promociones en juegos y audiovisuales
- y mucho más...

Ven y llévatela **gratis**.

elkar megadendak Araban / en Alava

San Prudencio, 7 - Tel.: 945 144 501

Apraiztarrak, 1 - Campus - Tel.: 945 141 670

BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA
GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA

ZER EKARRIKO DIZU AURTEN OLENTZEROK?

ESKAIOZU GEU ALDIZKARIKO HARPIDETZA.

IDEIA ORIGINALA, MERKEA ETA KONPROMISOZ BETERIKOA...

EUSKARAREKIKO HILEZ HILEKO KONPROMISOA!!!

>bete ezazu fitxa hau eta olentzerori bidaliozu behean agertzen zaizun helbidera
geugaste@grn.es / geu@geugasteiz.com / pedro asua 2-3.a - 01008-gasteiz / 945222153



izen-abizenak: _____

helbidea: _____

telefono zk.: _____

-kontu korrontearen 20 dijitoak, olentzerok kudeaketak egin ditzan

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

(urteko kuota: 20 €)



- Koaderno hauek pentsatzen eta hausnartzen laguntzen dute.
- Buruketen soluzioaren logikan sartzen dute ikaslea.
- Arlo honetan zailtasunak izan ohi dituzten ikasleengana zuzendurik daude.

Sekuentziaturik eta eragiketak europar moneta bakarrarekin, euroarekin alegia, burutzeko egokiturik daude.

Argibideak eta eskariak.
Tel./Faxa:

945 25 75 14

